Dagokion Arau Partikularrean irizpide murriztaileagoak ezarri ezean, garapen-planeamenduaren beharra aurreikusten den eremuetan lehendik dauden eraikinek behar bezalako segurtasun- eta osasungarritasun baldintzetan erabili eta mantentzeko nahiz behar diren jarduerak ezartzeko beharrezko obrak egiteko dagozkien udal-lizentziak lortu ahal izango dituzte. Nolanahi ere, baimenduak izateko, obra edo jarduera horiek eremu horretan ezarritako hirigintza-erregimenarekin bat etorri beharko dute, eta betiere, indarreko legerian behinbehineko erabilerak baimentzeko ezartzen diren baldintzak bete beharko dira. Gai honi dagokionez, besteak beste, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 36. eta 37. artikuluetan xedatutakoa bete beharko da. Testuinguru horretan, eta hala badagokio, bizitegi-erabilerak ezartzeko baimena lehendik erabilera horietarako xedatuta zeuden eraikinetara mugatuko da.	Salvo que en la correspondiente Norma particular se establezcan criterios más restrictivos, las edificaciones preexistentes en los ámbitos en los que se prevea la formulación del citado planeamiento de desarrollo podrán ser objeto de las correspondientes licencias municipales para la ejecución de obras e implantación de actividades necesarias para su uso y mantenimiento en las debidas condiciones de seguridad y salubridad. En todo caso, su autorización sólo será posible si dichas obras, o actividades son acordes con el régimen urbanístico establecido en ese ámbito, y siempre dentro de los requisitos establecidos en la legislación vigente para la autorización de usos provisionales. A ese respecto, se atenderá a lo dispuesto en, entre otros, los artículos 36 y 37 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. En ese contexto, la autorización, en su caso, de usos residenciales se limitará a las edificaciones preexistentes previamente destinadas a esos usos.
2- Aurreko epigrafean azaldutako egoeran ez dauden eta dagokien antolamendu xehakatua duten lurrek, hirigintza-planeamenduan zehaztuta izan beharko dituzte fatxada guztien lerrokadurak, garaierak, solairukopurua eta eraikinaren sakonera, eta baita eraikina lur hiritartuan ezartzeko bete beharreko sestren kotak ere, dagozkien urbanizazio-obrak egin ondoren, egin behar badira, orubetzat hartu ahal izateko.	2. Las parcelas que no se encuentren en la situación descrita en el epígrafe anterior y cuenten con la correspondiente ordenación pormenorizada, deberán tener definidas en el planeamiento urbanístico las alineaciones de todas sus fachadas, las alturas, el número de plantas y el fondo de edificación, así como las correspondientes cotas de las rasantes de apoyo de la edificación en el terreno urbanizado, para que, tras la eventual ejecución de las correspondientes obras de urbanización, puedan ser consideradas como solares.

Udalak obra-lizentzia emateari uko egingo dio parametro horiek oso-osorik zehaztuta ez badaude, eta dauden arau-hutsuneak zuzentzeko xehetasun-azterlana edo egokitzat jotzen den hirigintza-agiria aldez aurretik izapidetzeko eskatuko du.	El Ayuntamiento denegará la concesión de licencia de edificación cuando esos parámetros no estén definidos íntegramente, y exigirá la tramitación previa, bien de un estudio de detalle, bien del documento urbanístico que se estime adecuado, para subsanar los vacíos normativos existentes.
2- Hiritartzeko baldintzak betetzea eta onura eta kargen banaketa.	2. Cumplimiento de las condiciones de urbanización y distribución de beneficios y cargas.
1- Ezin izango da lizentziarik eman jarduketa integratuen xede diren eremuetan edo exekuzio-unitateetan sartuta dauden partzeletan eraikin berriak egiteko, partzela horiek orubetzat hartzeko baldintzak betetzen ez diren artean. Horretarako, honako eskakizunak bete beharko dira:	1. No podrá concederse licencia para la ejecución de nuevas edificaciones en parcelas incluidas en ámbitos objeto de actuaciones integradas o en unidades de ejecución, hasta que no reúnan las condiciones necesarias para su consideración como solares. Para ello, se deberán cumplir todas las condiciones siguientes:
• Indarreko hirigintza-planeamenduan, lehenengo ataleko 1.2.puntuan adierazitako parametroak zehaztuta izatea. • Dagokion Hirigintzako Jarduketa Programa behin betiko onartuta izatea. • Partzela sartuta dagoen exekuzio-unitateko onura eta kargen berdinbanaketa-proiektua behin betiko onartuta izatea. • Kasu bakoitzean urbanizazio-obrak zehazteko eta exekutatzeko behar den proiektua behin betiko onartuta izatea. • Aldez aurretik urbanizazio-obrak egitea. Nolanahi ere, kasu bakoitzaren baldintzak eta ezaugarriak kontuan izanik, bidezkotzat har daiteke obra horiek eta eraikuntzakoak aldi berean egitea. Kasu horretan, obrak aldi berean egiteko baimena komenigarritzat lotzen dituen bermeak jasotzeko baldintzapean emango du Udalak.	• Definición por el planeamiento urbanístico vigente de los parámetros enunciados en el apartado 1.2. • Aprobación definitiva del correspondiente Programa de Actuación Urbanizadora. • Aprobación definitiva del proyecto de equidistribución de beneficios y cargas de la unidad de ejecución en la que se integre la parcela. • Aprobación definitiva del proyecto necesario, en cada caso, para la determinación y ejecución de las obras de urbanización. • Ejecución previa de las correspondientes obras de urbanización, sin perjuicio de que, en atención a las condiciones y características de cada caso, se estime oportuna la ejecución simultánea de dichas obras y las de edificación. En este caso, el Ayuntamiento condicionará la autorización de esa ejecución simultánea a la consignación de las garantías que estime convenientes.
2- Ezin izango da lizentziarik eman, eraikigarritasuna gehitzearen ondorioz finkatu gabeko hiri-lurzoru gisa sailkatutako partzeletan lehendik dagoen eraikigarritasuna gehitzea dakarten obrak egiteko — aurrekoen ordez eraikin berriak egitea barne—, honako baldintza hauek betetzen ez diren artean:	2.No podrá concederse licencia para la ejecución de obras que impliquen el incremento de la edificabilidad preexistente, incluida la sustitución de dichas edificaciones, en parcelas clasificadas como suelo urbano no consolidado por incremento de la edificabilidad en tanto se cumplan todas las condiciones siguientes:

- Indarreko hirigintza-planeamenduan, lehenengo ataleko 1.2.puntuan adierazitako parametroak zehaztuta izatea. - Partzela sartuta dagoen exekuzio-unitateko onura eta kargen berdinbanaketa-proiektua behin betiko onartuta izatea. - Urbanizazio-obra osagarriak zehazteko eta egiteko behar den proiektua behin betiko onartuta izatea, obra horiek beharrezkoak badira.	- Definición por el planeamiento urbanístico vigente de los parámetros enunciados en el apartado 1.2. - Aprobación definitiva del proyecto de equidistribución de beneficios y cargas de la unidad de ejecución en la que se integre la parcela. - Aprobación definitiva del proyecto que, en su caso, resulte necesario para la determinación y ejecución de las obras complementarias de urbanización, si estas fueran exigibles.
3- Indarreko hirigintza-planeamenduan lehenengo ataleko 1.2.puntuan aipatutako parametroak behin jasota, jarduketa isolatuen mendeko eraikin berriak egiteko udal-lizentzia lortzeko, eraikin horiek zehazteko eta exekutatzeko beharrezkoa den urbanizazio-obra osagarrien proiektua onartu beharko da aldez aurretik edo aldi berean. Urbanizazio-obra horiek eraikuntzakoak baino lehen edo aldi berean egin daitezke. Azken kasuan, Udalak komenigarritzat jotzen dituen bermeak jartzearen baldintzapean emango du bere baimena.	3. Una vez queden definidos por el planeamiento urbanístico vigente los parámetros enunciados en el apartado 1.2, la concesión de licencia municipal para la construcción de nuevas edificaciones sujetas a actuaciones aisladas, queda condicionada a la previa o simultánea aprobación del proyecto de obras complementarias de urbanización que, en su caso, resulte necesario para su determinación y ejecución. Las citadas obras de urbanización serán ejecutadas previa, o simultáneamente a las de edificación. En este último caso, la autorización del Ayuntamiento quedará condicionada a la consignación de las garantías que estime convenientes.
Urbanizazio-obra osagarri horiek Udalak egin baditu, jarduketaren sustatzaileak Udalari ordainduko dizkio obren kostuak. Era berean, udal-lizentzia hori emateko, adierazitako jarduketari atxikitako zuzkidura publikoetarako xedatutako lurrak aldez aurretik edo aldi berean Udalari lagatzea ezarriko da baldintza gisa.	En caso de que estas obras de urbanización complementaria hubieran sido ejecutadas por el Ayuntamiento, el promotor de la actuación resarcirá su costo a dicha administración. De igual manera, la concesión de la citada licencia municipal se condicionará a la previa, o simultánea cesión al Ayuntamiento de los terrenos destinados a dotaciones públicas vinculadas a la citada actuación.
3- <u>Eraikitzeko udal-lizentzia eskatzeko eta obrak hasteko eta amaitzeko epeak</u>. Exekuzio-unitateetan edo jarduketa integratuko eremuetan sartzen ez diren partzela eraikigarrien kasuan, eraikuntza-lizentziaren eskaera formala egiteko epea lau (4) urtekoa izango da, dagokion antolamendu xehakatua onartzen denetik hasita. Betiere ordenazio xehakatuan ezartzen diren epeen kalterik gabe.	3. <u>Plazos para la solicitud de licencia municipal de edificación, y para el inicio y finalización de las obras</u>. En las parcelas edificables que no se incluyan en unidades de ejecución, o en ámbitos de actuación integrada, el plazo para la solicitud formal de la licencia de edificación, será de cuatro (4) años a contar desde la aprobación de la correspondiente ordenación pormenorizada, sin perjuicio de los plazos que se establezcan en ella.

Jarduketa integratuen xede diren eremuetan sartzen ez diren exekuzio-unitateetan kokatutako partzela eraikigarrien kasuan, eraikitze-lizentziaren eskaera formala egiteko epea bi (2) urtekoa izango da, onura eta kargen berdinbanaketa-proiektua onartzen denetik hasita. Betiere ordenazio xehakatuan ezartzen diren epeen kalterik gabe.	En las parcelas edificables situadas en unidades de ejecución no incluidas en ámbitos objeto de actuaciones integradas, el plazo para la solicitud formal de licencia de edificación, será de dos (2) años contados a partir de la aprobación del correspondiente proyecto de equidistribución de beneficios y cargas, sin perjuicio de los plazos que se establezcan en la ordenación pormenorizada.
Jarduketa integratuen xede diren eremuetan sartzen diren exekuzio-unitateetan kokatutako partzela eraikigarrien kasuan, eraikitze-lizentziaren eskaera formala egiteko epea kasu bakoitzean Hirigintzako JarduketaPrograman finkatutakoa izango da.	En las parcelas edificables situadas en unidades de ejecución incluidas en ámbitos objeto de actuaciones integradas, el plazo para la solicitud formal de licencia de edificación, será el fijado en cada caso en el correspondiente Programa de Actuación Urbanizadora.
Garapen-planeamenduak, edo hala badagokio, Hirigintzako Jarduketa Programak, eraikitze-lizentzien eskaera formala egiteko epeak finkatuko ditu, eta baita, proiektatutako eraikinen lanak hasteko eta amaitzeko epeak eta lan horiekin koordinatutako urbanizazio-obren exekuzio-faseenak ere.	El planeamiento de desarrollo o, en su caso, el Programa de Actuación Urbanizadora fijará los plazos en los que se ha de proceder a la solicitud formal de las correspondientes licencias de edificación, así como los de inicio y finalización de las construcciones proyectadas y de las fases de ejecución de las obras de urbanización coordinadas con aquellas.
Aldez aurretik zehaztuta ez dauden guztietan, dagokion udal-lizentzia ematen den unean finkatuko dira proiektatutako eraikuntza-obrak hasteko epea, gehienez eteteko epea, eta amaitzeko epea. Aipatutako epeak urbanizazio-obra osagarriei edota eraikinarekin batera gauzatu behar diren urbanizazio-obrei ere ezarriko zaizkie.	Siempre que los plazos de inicio, interrupción máxima y finalización de las obras de edificación proyectadas no estén previamente definidos, serán establecidos en el momento de concesión de la correspondiente licencia municipal. Los citados plazos también se establecerán en relación con las obras de urbanización que, en su caso, deban ejecutarse de forma complementaria o simultánea a la edificación.
4- <u>Plan Berezia beharrezkoa dela aurreikusten den hiri-lurzoru gisa sailkatutako eremuetan lehendik dauden eraikinetan obrak exekutatzea eta jarduerak burutzea</u>	4. <u>Ejecución de obras y ejercicio de actividades en edificaciones existentes en ámbitos clasificados como suelo urbano, en los que se prevé la formulación de planeamiento especial</u>
Oro har, eta dagokion Plan Berezia formulatzen eta onartzen ez den artean, eremu horietan dauden eraikinak, baldin eta bere garaian indarrean zegoen hirigintza-antolamenduan xedatutakoaren arabera eta udallizentziarekin eraiki baziren, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen “101.3.c” artikuluan adierazten diren lehendik dauden eraikinen berezko izaera edukiko dute. Plan Berezi hori onartzen ez den artean, eraikin horietan ezin izango da ordezteko,	Con carácter general, en tanto no sea formulado y aprobado el correspondiente Plan Especial, las edificaciones existentes en dichos ámbitos, siempre que hubiesen sido construidas en su momento amparados por licencia municipal y de conformidad con lo dispuesto en la ordenación urbanística entonces vigente, tendrán la condición propia de las edificaciones preexistentes a las que se hace referencia en el artículo 101.3.c de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.En tanto no

jasotzeko, handitzeko edo hirigintza-aprobetxamendua gehitzeko obrarik egin. Nolanahi ere, eraikin horiek mantentzeko eta kontserbatzeko obrak egin ahal izango dira, eta baita bertan baimendutako erabilera eta jarduerak behar bezalako segurtasun eta osasungarritasun-baldintzetan garatzeko lanak ere.

sea aprobado dicho Plan Especial, las citadas edificaciones no podrán ser objeto de obras de sustitución, levante, ampliación o incremento de aprovechamiento urbanístico. Ahora bien, podrán ser objeto de las obras necesarias, tanto para su mantenimiento y conservación, como para el desarrollo en las mismas de usos y actividades autorizados, en las debidas condiciones de seguridad y salubridad.

Plan Berezia onartzen ez den artean, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 36. Eta 37. artikuluetan aipatutako erabilerak ezartzea baimenduko da, bertan araututako behin-behinekotasuneko baldintzetan.

En tanto no sea aprobado el Plan Especial, se autorizará la implantación de los usos mencionados en los artículos 36 y 37 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, en las condiciones de precariedad reguladas en ella.

5- Sistema Orokorren sareko zuzkidura publikoak garatzea eta exekutatzea.

5. Desarrollo y ejecución de las dotaciones públicas de la red de sistemas generales.

Sistema Orokorren sarean sartutako zuzkidura publikoak garatzeko eta exekutatzeko orduan, indarreko legerian, planeamendu orokor honetan eta berau garatzen duten hirigintza-planetan horri buruz ezarritako irizpideak jarraituko dira.

El desarrollo y la ejecución de las dotaciones públicas integradas en la red de sistemas generales se adecuará a los criterios establecidos a ese respecto en la legislación vigente, en el presente planeamiento general y en los planes urbanísticos que lo desarrollen.

36. artikukua.- lurzoru urbanizaezinean eraikinak exekutatzea eta baimendutako erabilerak ezartzea.

Artículo 36 .- Ejecución de las edificaciones e implantación de usos autorizados en el suelo no urbanizable.

1- Irizpide orokorrak.

1. Criterios generales.

Lurzoru urbanizaezinean eraikitzeko eta erabilerak ezartzeko ahalmena indarrean dagoen hirigintzalegerian zein Plane Orokor honetan eta, hala badagokio, berau garatzeko sustatzen den planeamenduan xedatutakora egokituko da.

El ejercicio de la facultad de edificación e implantación de usos en el suelo no urbanizable se acomodará a lo dispuesto, tanto en la vigente legislación urbanística, como en este Plan General, así como en el planeamiento que, en su caso, se promueva en su desarrollo.

2- Landa-erabilerak ezartzea.
Erabilera horiek ezarri ahal izateko, aldez aurretik, erabilerok arloko legeria aplikagarrira egokitzen direla dioen ziurtagiria luzatu beharko du kasu bakoitzean eskumena duen Administrazioko erakundeak, hirigintza Arau Orokor hauetan zona global bakoitzaren eraikuntza-erregimenari eta erabilerari buruz, eta lurzoru ezhiritargarria arautzen duten xedapen partikularrei buruz, ezarritakoaren arabera (*bosgarren Titulua*).

2. Implantación de usos rurales.
La implantación de los citados usos exigirá la certificación previa de su adecuación a la legislación sectorial aplicable, emitida por el organismo de la Administración competente en cada caso, según queda contemplado en estas normas urbanísticas generales, referentes al régimen de edificación y uso de cada zona global y a las disposiciones reguladoras particulares del suelo no urbanizable. (*Título quinto*).

3- Beste erabilera baimendu batzuk ezartzea.
3.1- Planeamendu orokor hau onartu aurretik dauden eraikinetan.

Plan honetan bertan, planeamenduan eta berau garatzeko sustatzen diren proiektuetan azaldutako salbuespenekin, eraikin horiek finkatutzat hartuko dira, dagozkien baldintzatzaileekin –eraikuntzaren ezaugarriak; atxikitako partzela; bideetarako distantzia; etab.

Salbuespen horiek, besteak beste, antolamenduz kanpokotzat jo diren edo joko diren eraikinak ukitzen dituzte, txabolak, teilapeak, eranskin prekarioak eta ingurunea degradatzen duten gainerako elementuak barne. Ondorio horietarako, eraikin horiek ez dira lehendik dauden eraikintzat hartuko.

Finkatutako eraikin horiek kasu bakoitzean baimendutako erabilerak ezartzeko xedatu ahal izango dira eta, berariaz kontrakorik adierazi ezean, ez dituzten eraikin berrientzat ezarrita dauden baldintzak bete beharko – gutxieneko partzela; distantziak; eraikigarritasuna; etab.–.

Nolanahi ere, erabilera horiek ezartzeko baimena indarrean dagoen hirigintza-legerian araututako irizpide eta izapideetara egokituko da, eta indarrean dagoen hirigintza-planeamenduan –Plan hau barne– ezarritako baldintzak betetzearen baldintzapean egongo da. Bereziki kontuan hartuko dira eragindako ingurunea leheneratzeari eta txukuntzeari eta bertan dauden eranskinak, txabolak, instalazioak eta abar eraisteari buruzko eskakizunak, horiek mantentzeak dakarren degradazioa ezabatzeko.

3.2- Eraikin berrietan.
Lurzoru ez-hiritargarrian baimen daitezkeen landa-jarduketez bestelako jarduketetarako xedatutako eraikin berrietan erabilera berriak ezarri ahal izateko –interes publikoko erabilerak (ekipamendu-erabilerak eta hirugarren sektorekoak; zerbitzu azpiegitura pribatuak; etab.)–, nahitaezkoa izango da eraikigarritasunari, eraikinei eta erabilerari buruzko baldintzatzaile espezifikoak jasotzen dituen Plan Berezia aldez aurretik formulatzea eta onartzea.

3. Implantación de otros usos autorizados.
3.1 En edificaciones existentes con anterioridad a la aprobación de este Planeamiento General.

Con las salvedades expuestas en este mismo plan, en el planeamiento y en los proyectos que se promuevan en su desarrollo, dichas edificaciones se entenderán consolidadas con sus actuales características de la edificación, parcela vinculada, distancias a linderos, etcétera.

Esas salvedades afectan, entre otras, a las edificaciones declaradas o que se declaren fuera de ordenación, incluidas las chabolas, tejavanas, añadidos precarios y demás elementos degradantes del entorno. A estos efectos, estas edificaciones no serán consideradas como edificaciones existentes.

Las citadas edificaciones consolidadas podrán destinarse a la implantación de los usos autorizados en cada caso, sin que, salvo que expresamente se indique lo contrario, resulte necesaria la cumplimentación de los requisitos establecidos para las nuevas edificaciones —parcela mínima, distancias, edificabilidad, etcétera—.
En todo caso, la autorización de esos usos se ajustará a los criterios y trámites regulados en la vigente legislación urbanística, y se condicionará al cumplimiento de los requisitos establecidos en el planeamiento urbanístico vigente, incluido el presente plan, en particular en lo referente a la recuperación ambiental y adecentamiento del entorno afectado, así como al derribo de los anejos, chabolas, instalaciones, etc. que puedan existir, con el fin de eliminar la degradación que su mantenimiento supone.

3.2 En nuevas edificaciones.
La implantación en suelo no urbanizable de nuevos usos en nuevas edificaciones destinadas a actividades no rurales susceptibles de ser autorizadas —usos de interés público, tales como usos de equipamiento y terciarios, infraestructuras de servicio privadas, etcétera— requerirá la previa formulación y aprobación de un plan especial que defina los condicionantes específicos de edificabilidad, edificación y uso.

Espediente hori indarreko legerian ezarritako irizpideen arabera izapidetu eta onartuko da. Ahal izanez gero, espediente hori izapidetzerakoan, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen «28.5.a» artikuluan aurreikusitako jarduketaren interes publikoa aitortzeko beharrezkoak diren jarduketak txertatuko dira. Horretarako, Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundira igorriko da, aitorpen hori luza dezan.

Nolanahi ere, baimena emateko eta ezartzeko, baimena eman aurreko beste lizentzia-eskaera batzuetatik ondorioztatzen diren baldintzak bete beharko dira, hau da, zonako landa-erabilera bereizgarriei dagozkienak – Edo horien laguntzaileak-, eta, hirigintza-arau hauetan ezarritako baldintzak (banantzekoak edo bestelakoak)direla-eta, ezartzeko eskatzen diren erabilera onargarriekin guztiz edo partzialki bateraezinak izan daitezkeenak.

Izaera puntuala edo eragin txikiko zerbitzu azpiegiturak ezartzeko ez da Plan Berezi hori formulatu beharrikizango.

4- Lehendik dauden eraikinak.
Aurreko ondorioetarako, lehendik dauden eraikintzat hartuko dira, Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legean eta berau garatzen duen legerian ezarritako irizpideetara egokitzen diren eta aurri-egoeran ez dauden edo hurrengo artikuluaren arabera antolamenduz kanpokotzat jo ez diren eraikinak.

Eraikin horietan obrak egiteko edota jarduketak garatzeko edo ezartzeko edozein esku-hartze mota proposatzen denean, behar bezain zehatz eta zorrotz egiaztatu eta justifikatu beharko dira honako alderdi hauek:

1. Eraikina lehendik badagoela. Horretarako, honako alderdi hauek egiaztatu beharko dira:
- 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 30. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea.
- Bere garaian indarrean zegoen hirigintza-erregimenaren arabera eta zegokion udal-lizentzia lortu ondoren eraiki izana.

Dicho expediente será tramitado y aprobado de conformidad con los criterios establecidos en la legislación vigente. Siempre que resulte viable, se insertarán en su tramitación las actuaciones necesarias para la declaración del interés público de la actuación prevista en el artículo 28.5.a de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. Con ese fin, el plan especial será remitido a la Diputación Foral de Gipuzkoa a los efectos de la emisión de dicha declaración.

En todo caso, su autorización e implantación se subordinará a las condiciones que resulten de otras solicitudes de licencia, previas a su concesión, correspondientes a usos rurales característicos en la zona —o auxiliares de aquellos— y que pueden resultar incompatibles, total o parcialmente, con los usos admisibles cuya implantación se solicita, por razón de las condiciones (de separación u otras) establecidas en estas Normas Urbanísticas.

La implantación de infraestructuras de servicios de carácter puntual o de escasa incidencia no requerirá la formulación de dicho Plan Especial.

4. Edificaciones existentes.
A los efectos anteriores, se considerarán existentes las edificaciones que, estando ajustadas a los criterios establecidos al efecto en la citada Ley del Suelo y Urbanismo y en la legislación que la desarrolle, no se encuentren en estado de ruina ni hayan sido declaradas fuera de ordenación conforme a lo dispuesto en el siguiente artículo.

Siempre que se plantee cualquier tipo de intervención en dichas edificaciones, sea para la realización de obras o para el desarrollo o la implantación de actividades, se deberán acreditar y justificar, con el debido detalle y rigor, los siguientes extremos:

1. La acreditación de la existencia de la edificación, que deberá estar justificada en:
- El cumplimiento de los requisitos establecidos en el citado artículo 30 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.
- Haber sido construidas de conformidad con el régimen urbanístico vigente en su momento, previa obtención de la correspondiente licencia municipal.

- Plan Orokor honek zein berau garatzeko sustatutako planeamenduak antolamenduz kanpokotzat ez jo izana eta horien ondoriozko hirigintza-erregimenaren kontrakoa ez izatea.

- No haber sido declarada fuera de ordenación tanto por este Plan General como por el planeamiento promovido en su desarrollo, ni haber sido declarado disconforme con el régimen urbanístico resultante de aquellos.

- Bere kokapena eta kontserbazio-egoera, ezaugarri formalak (oinplano-okupazioa, lerrokadurak, garaiera, solairukopurua, etab.) eta hirigintza-eraikigarritasuna.

- Su situación y estado de conservación, sus características formales (ocupación en planta, alineaciones, altura, número de plantas, etc.) y su edificabilidad urbanística.

- Gaur egun nahiz iraganean zein erabilera eta jarduketatarako xedatuta egon den. Testuinguru horretan, bizitegi-erabilerak ezartzea proposatzen bada, Planeamendu orokor hau onartu aurreko garaian ere erabilera horretara legez zuzenduta egon dela egiaztatu beharko da.

- Indarrean dagoen hirigintza-planeamenduan zein gainerako lege-xedapen aplikagarrietan –lurraldea antolatzeko tresnak barne– ezarritako hirigintza-erregimenra egokitzen dela.

- Su destino a unos u otros usos y actividades, tanto en la actualidad como en el pasado. En ese contexto, siempre que se plantee la implantación de usos residenciales, deberá acreditarse su destino legal a ese uso en el período anterior a la aprobación de este Planeamiento General.
- Su adecuación al régimen urbanístico establecido, tanto en el planeamiento urbanístico vigente, como en las restantes disposiciones legales, incluidos instrumentos de ordenación territorial que le sean de aplicación.

5- Erregistroko egiaztapenaren exijentzia.
Hirigintza Arau hauek lehendik dauden eraikinetan, edo berrietan, erabilera bereizgarriak edo onargarriak ezartzeko jarduketak baimentzea eraikin horiei lur-azalera jakin bat atxikitzearen baldintzapean jartzen dutenean, dagokien lehen erabilerako lizentzia emateko edo lizentzia hori baliozkoa izateko, aipatu atxikipena formalizatu izana egiaztatzen duen Jabetza Erregistroaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta hala badagokio,dagokion finkaren banaezintasunaren ziurtagiria ere bai.

5. Exigencia de acreditación registral.
En todos aquellos casos en los que estas Normas Urbanísticas condicionan la autorización de actuaciones de implantación de usos característicos o admisibles, en edificaciones preexistentes o nuevas, a la vinculación a las mismas de una determinada superficie de terreno, la concesión o validez de la correspondiente licencia de primera utilización quedará ligada a la presentación del certificado del Registro de la Propiedad acreditativo de la formalización de la indicada vinculación, y, en su caso, de la indivisibilidad de la finca correspondiente.

6- Ingurumen-ebaluazioa.
Lurzoru ez-hiritargarrian baimendutako obrak eta jarduketak, baimenduta dauden jarduketak ezartzekoak barne, dagokien ingurumen-ebaluazioaren pean jarriko dira gai horri buruz indarrean dagoen legerian ezarritako kasu eta baldintzetan

6. Evaluación ambiental.
Las obras y actuaciones autorizadas en el suelo no urbanizable, incluidas las de implantación de actividades asimismo autorizadas, serán objeto de la correspondiente evaluación ambiental en los supuestos y condiciones establecidos en la legislación vigente en la materia.

37 artikulua. Antolamenduz kanpoko eraikinak, instalazioak eta erabilerak, planea-menduarekin bat ez datozenak eta lehendik daudenak.

1- Irizpide orokorrak.
Oro har, eta berariaz ezar daitezkeen salbuespenei kalterik egin gabe, Plan Orokor honetan nahiz beraugaratzeko sustatutako planeamenduan ezarritako hirigintza- erregimenarekin bat ez datozen eraikinak, instalazioak eta erabilerak antolamenduz kanpokotzat edo hirigintza-antolamenduaren kontrakotzat hartuko dira.

Egoera hori dagoela ulertuko da, aipatu planeamenduan berariaz eta banan-banan hala adierazten denean, eta baita ere, zehaztasun hori ematen ez bada ere, dagozkion eraikinak eta erabilerak bertan ezarritako hirigintzaerregimenarekin bat ez datozenean. Horiek guztiak, oro har, indarrean dagoen hirigintza-legerian ezarritako hirigintza-erregimenaren mendekotzat hartuko dira (*2006ko ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 101. artikulua*). Orokorrean, halaber, horietan baimen daitezkeen obra eta jarduerek artikulu horren 5. paragrafoan ezarritako irizpideak bete beharko dituzte, besteak beste.

2- Hiri-lurzorua.
2.1- Hirigintza-antolamenduaren kontrako edo antolamenduz kanpoko eraikinak eta instalazioak izango dira, horiek mantentzeko lanek hirigintza-planeamenduan ezarritako aurreikuspenak gauzatzea eragozten dutenak.Horien artean daude Planeamendu orokor honetan mugatutako hirigintza-eremuen planoan adierazten direnak eta, hala badagokio, horiek garatzeko formulatzen diren planeamendu-espedienteek zehazten dituztenak.
2.2- Testuinguru orokor horretan, eta 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen “101.3.a” artikuluan xedatutakoaren arabera, antolamenduz kanpokotzat jotzen dira:

- Jarduketa integratuen erregimenpeko hirigintza-garapen berrien xede diren esparruetan dauden eraikinak eta instalazioak, baldin eta Planeamendu orokor honetan berariaz zehaztuta dagoen eta eraikin eta instalazio horiei dagokien antolamendu xehakatuarekin bat ez badatoz.
- Exekutatzeko epe edo horizonte jakin bat

Artículo 37. Edificios, instalaciones y usos fuera de ordenación, disconformes con el planeamiento y preexistentes.

1. Criterios generales
Con carácter general, y sin perjuicio de las salvedades que en su caso se establezcan expresamente, se declaran fuera de ordenación o disconformes con la ordenación urbanística, las edificaciones, instalaciones y usos no acordes con el régimen urbanístico establecido en este Planeamiento General o en el planeamiento promovido en su desarrollo.

Se entenderá que existe tal situación tanto en aquellos supuestos en que se manifieste de forma expresa e individualizada en el citado planeamiento, como en aquellos otros en los que, sin darse esa precisión, las correspondientes edificaciones y usos no sean acordes con el régimen urbanístico establecido en él.
Todas ellas se entenderán sujetas, con carácter general, al régimen urbanístico establecido en la legislación urbanística vigente (*artículo 101 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo*).
También con carácter general, las obras y actuaciones autorizables en ellos deberán adecuarse, entre otros, a los criterios establecidos en el apartado 5 de dicho artículo.

2. Suelo urbano.
2.1 Se declaran fuera de ordenación, o disconformes con la ordenación urbanística las edificaciones e instalaciones cuyo mantenimiento impida la ejecución de las previsiones establecidas en el planeamiento vigente, y, entre ellas, las señaladas en las Normas Particulares de los ámbitos urbanísticos delimitados en este Planeamiento General, así como las que, en su caso, definan los expedientes de planeamiento que se formulen en su desarrollo.
2.2 En ese contexto general, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 101.3.a de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, se declaran fuera de ordenación:

- Las edificaciones e instalaciones existentes en los ámbitos objeto de nuevos desarrollos urbanísticos en régimen de actuaciones integradas, siempre que no sean acordes con la correspondiente ordenación pormenorizada, definida expresamente en este Planeamiento General.
- Las edificaciones e instalaciones existentes en

finkatzen zaien zuzkidura publiko orokorrak zein tokikoak gauzatzeko aurreikuspenek eragindako lurretan dauden eraikinak eta instalazioak.
- Aurreko eraikin eta instalazioetan garatutako erabilerak.

2.3- Ondoren adierazten den salbuespenarekin, lehendik dauden elementutzat hartuko dira jarduketa integratuen erregimenpeko hirigintza-garapen berrien xede diren hiri-eremuetan eta eremu urbanizagarrietan ezarrita dauden eraikinak, instalazioak eta erabilerak, baldin eta horien antolamendu xehakatua zehazteko garapen-planeamendua idaztea eta izapidetzea aurreikusten bada.

2006ko ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 101. artikuluko 5. idatz-zatian lehendik dauden elementuentzat ezarritako hirigintza-erregimenaren testuinguruan, eraikin horietan beren xedearen arabera erabiltzeko gutxieneko bizigarritasun- eta osasun-baldintzetan mantentzeko eta hirugarrenei kalterik ez eragiteko beharrezko jotzen diren obrak baimenduko dira.

Sistema orokorren sarean sartutako zuzkidura publikoetara zuzentzen diren eremu horietan dauden eraikin,instalazio eta erabilerei eragiten die adierazitako salbuespenak. Horiek guztiak aurreko 2.2 atalean aipatu den antolamenduz kanpoko erregimenaren mendekotzat hartuko dira.

2.4- Ontzat jo daitezkeen salbuespenei kalterik egin gabe, planeamenduan ezarritako hirigintza erregimenarekin bat ez datozen gainerako eraikinak eta instalazioak 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruaren etaHirigintzaren Legearen “101.3.b” artikuluan araututako desadostasun-erregimenaren mendekotzat hartuko dira.

3- Lurzoru urbanizaezina.

3.1- Planeamenduaren kontrakotzat joko dira lurzoru urbanizaezinean dauden eraikinak eta erabilerak, Planeamendu orokor honetan bereizten diren erabilera globaleko zonentzat eraikinei eta erabilerei buruz ezarrita dagoen erregimen orokorrarekin bat ez datozenean.

3.2- Planeamenduaren kontrako eraikinak eta instalazioak izango dira, horiek mantentzeko lanek Plan honetan zuzkidura publikoak ezartzeko, handitzeko eta abarrerako jaso diren aurreikuspenak gauzatzea eragozten dutenak.

los terrenos afectados por previsiones de ejecución de dotaciones públicas, tanto generales, como locales, para las que se fija un determinado plazo u horizonte de ejecución.
- Los usos desarrollados en las citadas edificaciones e instalaciones.

2.3 Con la salvedad que se indica a continuación, se entenderán preexistentes las edificaciones, instalaciones y usos implantados en los ámbitos urbanos y urbanizables objeto de nuevos desarrollos urbanísticos en régimen de actuaciones integradas, en los que se prevea la formulación de planeamiento de desarrollo, a efectos de determinación de su ordenación pormenorizada.

En el contexto del régimen urbanístico para los elementos existentes establecido en el apartado 5 del artículo 101 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, se autorizarán las obras que se consideren necesarias para su mantenimiento de los mismos en las condiciones mínimas de habitabilidad y salubridad para su uso según su destino y para evitar daños a terceros.

La indicada salvedad afecta a las edificaciones, instalaciones y usos existentes ubicados en esos ámbitos, cuyo destino es el de dotaciones públicas integradas en la red de sistemas generales. Todos ellos se considerarán sujetos al régimen de fuera de ordenación a que se refiere el apartado 2.2 anterior.

2.4.Sin perjuicio de las salvedades que, en su caso, se estimen oportunas, las restantes edificaciones e instalaciones no acordes con el régimen urbanístico establecido en el planeamiento, se entenderán sujetas al régimen de disconformidad regulado en el artículo 101.3.b de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

3. Suelo no urbanizable.

3.1 Se declaran disconformes con el planeamiento las edificaciones y usos existentes en el suelo no urbanizable no acordes con el régimen general de edificación y uso establecido para las distintas zonas de uso global diferenciadas por este Planeamiento General.

3.2 Se declaran disconformes con el planeamiento los edificios e instalaciones existentes cuyo mantenimiento impida la ejecución de las previsiones de implantación, ampliación, etc. de dotaciones públicas previstas en este plan, así

Beren ezaugarriak direla medio, berariaz debekatutako erabilerak ezartzera zuzen daitezkeen eraikinak eta instalazioak ere planeamenduaren kontrakotzat joko dira.	como todas aquellas que, por sus características, puedan destinarse a usos prohibidos de manera expresa.
Eraikin eta instalazio horiek indarrean dagoen hirigintza-legerian ezarritako erregimenari atxikitzat joko dira.	Dichos edificios e instalaciones se considerarán adscritos al régimen establecido en la vigente legislación urbanística.
3.3 Antolamenduz kanpokotzat joko dira txabolak, teilapeak, eranskin prekarioak eta landa-ingurunean dauden antzeko elementuak. Elementu horiek ezabatu egin behar dira, horiek mantentzea landa-ingurunea natura-, ingurumen- eta paisaia-baldintza egokietan edukitzearen edo lehenetratzearen kontrakoa baita.	3.3 Se declaran fuera de ordenación las chabolas, tejavanas, añadidos en precario y elementos similares, existentes en el medio rural, y que deben ser eliminados, dado que su mantenimiento resulta contrario a la preservación o restauración de dicho medio en las condiciones naturales, ambientales y paisajísticas adecuadas.
3.4- Plan Orokor honetan ezarritako zehaztapenen bat betetzen ez duten eta antolamenduz kanpokotzat jo ez diren eraikinetan eta instalazioetan, horiek aipatu zehaztapenetara erabat edo partzialki egokitzea eskatu ahal izango du Oñatiko Udalak. Eraikin edo instalazio horiek kokatuta dauden finkari eragiten dion edozein hirigintza-lizentziamateko, baldintza hori bete beharko da aldez aurretik edo aldi berean.	3.4 En los edificios e instalaciones no declarados fuera de ordenación, que incumplan alguna de las determinaciones establecidas en este Plan, el Ayuntamiento de Oñati podrá exigir su adecuación total o parcial a aquellas, como condición previa o simultánea a la concesión de cualquier licencia urbanística que afecte a la finca en la que quedan emplazadas dichos edificios e instalaciones.
4- Irizpide osagarriak. Hirigintza-planeamenduarekin bat ez datozen eraikin eta erabileratzat edo planeamenduaren kontrakotzat hartuko dira, hirigintza-planeamenduan ezarritako erregimenarekin bat ez datozen eraikinen zatiak eta horietan garatutako erabilerak, baldin eta: • Aipatu planeamenduan ezarritako epe jakin batzuetan horiek desagertzea edo ezabatzea aurreikusten ez bada. • Zuzenean edo zeharka beren existentzia bera edo legezkotasuna xede duen diziplina-espedienterik irekita ez badute, dela indarreko legerian horretarako ezarritako epeak igaro direlako, dela beste edozein inguruabarrengatik. • Hirigintza-legezkotasuna berrezartzeko neurriak ematea bidezkoa ez bada.	4. Criterios complementarios. Se entenderán disconformes con el planeamiento urbanístico las partes de las edificaciones y los usos desarrollados en ellas que no resulten acordes con el régimen establecido en el planeamiento urbanístico, siempre que: • No se prevea su desaparición o eliminación en unos plazos concretos establecidos por el citado planeamiento. • No tengan incoado expediente disciplinario alguno que tenga por objeto directo o indirecto su propia existencia o legalidad, bien por el transcurso de los plazos establecidos al efecto en la legislación vigente, bien por cualquier otra circunstancia. • No proceda dictar medidas para el restablecimiento de la legalidad urbanística.
Zehazki, horientzat baimendutako lerrokadura, garaiera eta solairu-kopurua arautzen duten parametroekin bat ez datozen eraikinen solairuak edo zatiak egongo dira egoera horretan, baldin eta epe jakin batean horiek ezabatzea aurreikusten ez bada. Eraikinaren solairu edo zati horiek artikulu honetako	En concreto, se considerará que se encuentran en la citada situación las plantas o partes de edificaciones existentes no acordes con los parámetros reguladores de las alineaciones, alturas y del número de plantas autorizados para ellas, siempre que no se prevea su eliminación en un plazo concreto.

2.4. idatz-zatian aipatutako kontrakotasun-erregimenaren mendekotzat hartuko dira. 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 101. artikuluko 5 idatz-zatian ezarritako hirigintza-erregimenaren testuinguruan, eraikinen solairuetan edo zatietan horiek beren xedearen arabera erabiltzeko beharrezkotzat jotzen diren obrak eta jarduketak egitea baimenduko da, baldin eta aipatu lanak beren egungo xedearekin bat badatoz eta honako baldintza hauek betetzen badira:

- Planeamendu orokor hau onartu aurreko ondo-ondoko garaian xede hori benetan eta eraginkortasunez gauzatu izana.
- Indarreko lege-xedapenetan eta hirigintza-planeamenduan, dagozkien erabilerak ezartzeko finkatutako gutxieneko kalitate-baldintzak, bizigarritasun-baldintzak, e.a. betetzea.

Esas plantas, o partes de la edificación se entenderán vinculadas al régimen de disconformidad mencionado en el apartado 2.4 de este mismo artículo. En el contexto del régimen urbanístico establecido en el apartado 5 del citado artículo 101 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, se autoriza la ejecución en ellas de las obras y actuaciones que se estimen necesarias para su uso y utilización, que sean acordes con su destino actual y siempre que se reúnan las siguientes condiciones:

- Haber sido objeto real y efectivo de ese destino en el período inmediatamente anterior a la aprobación de este Planeamiento General.
- Cumplir las condiciones mínimas de calidad, habitabilidad, etc. establecidas en las disposiciones legales vigentes, y en el planeamiento urbanístico, para la implantación de los correspondientes usos.

III.5 ATALA ERAIKIGARRITASUNA ESLEITZEKO ERREGIMENA.

38. artikulua.- irizpide orokorrak.

1- Indarreko hirigintza-legerian ezarritakoaren arabera, eraikigarritasun haztatutzat hartzen da, lurralde-eremu jakin batean aurreikusten den eta bertan antolatutako irabazizko erabileretara zuzentzen den hirigintzaeraikigarritasuna, erabilera horietako bakoitzari esleitutako haztapen-koefizientearekin biderkatu eta guztiak ebatzearen emaitza.
2- Antolamendu xehatuko eremu baten (area edo sektorea), jarduketa-eremu integratu baten edo egikaritzeunitate baten batez besteko eraikigarritasuna, eremuan aurreikusitako eraikigarritasun haztatu osoa, eremuaren barruan dauden eta eremuari atxikita dauden lursailen guztizko azalera konputagarriaren artean zatitzearen emaitza izango da.

Azalera konputagarriak zehazteko, indarrean dagoen hirigintzako legerian ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 35.5 eta 146. artikuluak).

3- Erabileren haztapen-koefizienteak zehazteari eta aplikatzeari dagokionez, indarrean dagoen hirigintza-legerian eta Arau Orokorren agiri honen 78. artikuluan ezarritakoa beteko da.

4- Eraikigarritasun haztatu eta batez besteko horiek hirigintza-antolamenduko eremu bati, egikaritze-eremu bati, hau da, jarduketa-eremu integratu bati edo hirigintza-egikaritzapeneko unitate bati buruzkoak izan daitezke.

5- Eraikigarritasun horiek (haztatuak eta batez bestekoak) erreferentzia gisa hirigintza antolatzeko eremu bat baldin badute, eremu hori bi exekuzio-unitate edo gehiagotan zatitzea proposatzen duen hirigintzaplaneamenduko agirian zehaztu beharko da (Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeko 144.2 artikulua).

6- Erreferentzia gisa hirigintza exekutatzeko eremu bat baldin badute, hala badagokio eta

CAPÍTULO III.5.- RÉGIMEN DE ASIGNACIÓN DE LA EDIFICABILIDAD.

Artículo 38. criterios generales.

1. De conformidad con lo establecido en la legislación urbanística vigente, se entiende por edificabilidad ponderada la resultante de multiplicar la edificabilidad urbanística prevista en un determinado ámbito, y destinada a los diversos usos lucrativos ordenados en él, por el coeficiente de ponderación asignado a cada uno de ellos.
2. La edificabilidad media bien de un ámbito de ordenación pormenorizada (área o sector), bien de un ámbito de actuación integrada, bien de una unidad de ejecución, será la resultante de la división de la totalidad de la edificabilidad ponderada prevista en el ámbito, entre la superficie total computable de los terrenos incluidos y adscritos al ámbito a los efectos de su ejecución.

Para la determinación de las superficies computables se tendrán en cuenta los criterios establecidos en la legislación urbanística vigente (artículos 35.5 y 146 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo).

3. En lo referente a la determinación y aplicación de los coeficientes de ponderación de usos se estará a lo establecido en la legislación urbanística vigente, y en el siguiente artículo 78 de este documento de Normas Generales.
4. Las citadas edificabilidades ponderada y media podrán estar referidas, bien a un ámbito de ordenación urbanística, bien a un ámbito de ejecución, es decir, a un ámbito de actuación integrada, o a una unidad de ejecución urbanística.
5. Siempre que tengan como referencia un ámbito de ordenación urbanística, dichas edificabilidades (ponderada y media) deberán quedar definidas en el documento de planeamiento urbanístico que plantee la división del citado ámbito en dos o más unidades de ejecución (artículo 144.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

6. Siempre que tengan como referencia un ámbito de ejecución urbanística, sin descartar

indarreko legeriaren arabera egokitzat jo daitezkeen beste aukera batzuk baztertu gabe, eraikigarritasun haztatua eta batez besteko eraikigarritasuna hirigintza-antolamendua exekutatzeko prozesuaren testuinguruan zehaztuko dira, honako irizpide hauen arabera:

otras opciones que, en su caso, y de acuerdo con la legislación vigente, se estimen adecuadas, las edificabilidades ponderada y media serán definidas en el contexto del proceso de ejecución de la ordenación urbanística, de conformidad con los siguientes criterios:

- Hirigintzako Jarduketa Programan edo berdinbanaketa-proiektuan, jarduketa integratuen mende dauden eremuen kasuan.
- Hala badagokio eta indarreko legerian ezarritako irizpideen arabera, zuzkidura-jarduketetan sustatu beharreko berdinbanaketa-proiektuan, baldin eta berau formulatzea beharrezkotzat jotzen bada.
- Eraikuntza-proiektuaren zati edo osagarri gisa, zuzkidura-jarduketen kasuan, baldin eta jarduketa horiek aipatu berdinbanaketa-proiektua formulatu beharrik ez badute.

- Jarduketa isolatuen kasuan, baldin eta parametro horiek zehaztea beharrezkotzat jotzen bada eraikuntza-proiektuaren zati edo osagarri gisa, edo, hala badagokio, birpartzelazio-proiektuan, baldin eta berau formulatzea beharrezkotzat jotzen bada.

- En el Programa de Actuación Urbanística, o en el proyecto de equidistribución, en el supuesto de los ámbitos sujetos a actuaciones integradas.
- En el proyecto de equidistribución a promover, en su caso, y de acuerdo con los criterios establecidos en la legislación vigente, en actuaciones de dotación, siempre que su formulación se estime necesaria.
- Como parte, o complemento del proyecto de edificación, en el supuesto de las actuaciones de dotación que no requieran la formulación del referido proyecto de equidistribución.
- Tratándose de actuaciones aisladas, y siempre que se estime necesaria la definición de tales parámetroscomo parte o complemento del proyecto de edificación, o, en su caso, en el proyecto de reparcelación cuando su formulación se estime necesaria.

7- Parametrook hirigintza-planeamenduan zehaztuz gero, aurreikuspen horiek egokitu ahal izango dira, Hirigintzako Jarduketa Programan edo birpartzelazio-proiektuan, horien berezko norainokoarekin eta esku hartzeko tartearekin.

7. En el supuesto de que la determinación de las edificabilidades ponderada y media se efectúe en el planeamiento urbanístico, dichas previsiones podrán ser reajustadas, bien por el Programa de Actuación Urbanizadora, bien por el Proyecto de Reparcelación, con el alcance y el margen de intervención propio de los mismos.

39. artikulua.- hiri-lurzoruan lurzoru urbanizagarri sektorizatuan hirigintza eraikigarritasuna esleitzeko erregimena

1- Oro har, hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarri sektorizatuan hirigintza-eraikigarritasuna esleitzeko erregimena indarrean dagoen hirigintza-legerian ezarritako irizpideetara egokituko da, hirigintza-eraldaketako jarduketei lotuta egon ala ez.

Artículo 39. Régimen de asignación de la edificabilidad urbanística en suelo urbano

1.- Con carácter general, el régimen de asignación de la edificabilidad urbanística en suelo urbano se ajustará a los criterios establecidos en la legislación urbanística vigente, esté o no vinculada la misma a actuaciones de transformación urbanística.

2- Hirigintza-eraldaketako jarduketetan loturik dauden hirigintza-garapenen kasuan, urbanizazio-jarduketa delakoen modalitate zehatzean, jabeei hirigintza-eskubide berrien eta, azken batean, proiektatutako hirigintzaeraikigarritasunaren esleipendun izateko eskubidea aitortzeko, indarrean dagoen hirigintza-legerian ezarritako kopuruan, jabeek jarduketa horien sustapenean esku hartu beharko dute aipatu legerian horri buruz ezarritako irizpideen arabera (Lurzoruaren eta Hiri Birgaikuntza Legearen Testu Bategina onartzen duen, urriaren 30eko, 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 14. Artikulua

2. Honako Plan Orokorra honek, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 4ko 20/97 Legea eta Lege hori garatzen duen apirilaren 11ko 68/2000 Lege Dekretua betetzen ditu, eta atzetik datozen garapen plangintzek ere bete beharko lituzkete. Lege horien bitartez, hain zuzen, hiri inguruneetarako, espazio publikoetarako, eraikinetarako eta informazio eta komunikazio sistemetarako sarbideen baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dira.	2. El Plan General cumple, y los posteriores planeamientos de desarrollo deberán cumplir la ley 20/97 de 4 de Diciembre del Gobierno Vasco, así como el Decreto 68/2000, de 11 de abril que la desarrolla por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

52 artikulua. Kontzeptuen terminologia.

Plan Orokorrean ondorengo kontzeptuak aipatzen diren aldi oro, jarraian zehaztutako esanahia izango dute:

1. Eraikinaren forma arautzeko solairuzko erreferentzia geometrikoak.

Lursailaren lerrokadura.
Lurzati-lerrokadura esaten zaio lurzatiak mugatzen dituen lerroari. Lerro horrek beste lurzati batzuetatik zein espazio publikoetatik bereizten du.

Eraikinaren lerrokadura.
Eraikuntza-lerrokadura esaten zaio eraikuntza baimenduak solairuan duen gehieneko inguratzailea sestra gainean edo sestrapean definitzen duen lerroari. Dena den, tolerantziak ezarri ahal izango dira, lerro horretatik ateratzen diren elementuen kokapenari dagokionez.

Fatxada.
Eraikiaren kanpoko itxierarako parametroa da, eta, bertan, argia eta airea sartzeko tarteak edo zuloak egin daitezke.

Fatxadaren azalera.
Eraikinaren lerrokaduratik bertikalean altxatzen den azalera da, lurretik teilatuaren goiko planueraino.

Atzeraemangunea.
Atzeraemangunea esaten zaio eraikuntzaren lerrokaduraren eta beste edozein fatxada-lerroren artean geratzen den azalerari.

Mehelin lerroa edo mehelina.
Lursail eraikigarri desberdinetako bi eraikin atxiki mugatzen dituen lursail lerrokaduraren gainean altxatzen den azalera bertikala, bi eraikinei dagokiena.

Sestra.
Sestra esaten zaio kale edo bide bateko lerroari, plano horizontalarekiko duen inklinazio edo paralelotasuna kontuan hartuta.

Eraikinen altuera.
Eraikin baten fatxada azaleraren altuera da, 54

Artículo 52. Terminología de conceptos.

Cuantas veces se empleen en el Plan General los conceptos que seguidamente se detallan, tendrán el significado siguiente:

1. Referencias geométricas básicas para la regulación de la forma de la edificación.

Alineación de parcela.
Se entiende por alineación de parcela la línea que delimita las parcelas, separándolas tanto de otras parcelas como de los espacios públicos.

Alineación de edificación.
Se entiende por alineación de edificación la línea que define la envolvente máxima en planta de la edificación autorizada, sea sobre rasante o bajo rasante, sin perjuicio de las tolerancias que pudieran establecerse respecto a la disposición de elementos que sobresalgan de ella.

Fachada.
Es el paramento de cierre exterior del edificio en el que se pueden abrir huecos para la luz y ventilación.

Superficie de fachada.
Es la superficie que se erige verticalmente, desde el terreno hasta el plano superior del tejado.

Retranqueo.
Se denomina retranqueo a la superficie comprendida entre la alineación de edificación y cualquier otra línea de la fachada.

Línea medianera o medianera.
Es la superficie vertical que sobre la alineación de parcela común a ambas delimita dos edificaciones adosadas pertenecientes a parcelas edificables diferentes.

Rasante.
Se entiende por rasante la línea de una calle o camino considerada en su inclinación o paralelismo respecto del plano horizontal.

Altura de edificación.
Es la altura de la superficie de fachada de un

artikuluan xedatutako irizpideak aintzat hartuz.

Altuera librea edo erabilgarria.

Solairuko puntu bakoitzean zoladuraren eta sabai aizunaren artean dagoen distantzia bertikala da.

Eraikinen profila.

Eraikin baten onartzen den solairuen kopurua da.

Estalkien baimendutako profila.

Lursailaren barnerantz %35 goranzko malda duen lerroak osatzen du,fatxadaren azaleraren goiko lineatik abiatuta.

Txapitula.

Baimendutako gehienezko profiletik irteten den eraikuntza da. Baimenduz gero, 76.2 artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu:

Elementu irtenak.

Elementu finkoak dira -ez dira ez bizigarriak ez okupatzeko modukoak-, eraikuntza edo apaindurazkoak. Fatxadako zati moduan, edo fatxadako eranskin moduan, fatxadaren azaleratik irteten dira.
Horrelakoak ditugu, besteak beste, zokaloak, pilastrak, inpostak, mentsulak, hegalak, erlaitzak eta markesinak.

Hegadak.

Fatxadaren azaleratik, fatxada bat datorrenean gehienezko lerrokadurarekin, irteten diren bizitzeko edo okupatzeko elementuak dira. Hegadak itxiak edo irekiak izan daitezke.

Hegada itxiak begiratokiak dira -izan aroztegikoak, izan fabrikazkoak-, alde guztietan itxiera dutenak, nahiz eta egingarriak.

Hegada irekiak, berriz, aldeak edo hein batean irekiak dituztenak dira; esate baterako, terrazak edo balkoiak. Bere aldeetan erraz desmuntagarriak diren itxitura arinak dituztenak barne.

edificio, con los criterios establecidos en el artículo 54.

Altura libre o útil.

Es la distancia vertical existente en cada punto de la planta entre el pavimento y el falso techo, terminados.

Perfil de edificación.

Es el número de plantas autorizadas en una edificación.

Perfil autorizado de cubierta.

Es el configurado por una línea con una inclinación máxima de 35% hacia el interior de la parcela a partir de la línea superior de la superficie de fachada.

Buhardilla.

Es la construcción que sobresale del perfil máximo autorizado de cubierta que en el caso de autorizarse debe de cumplir las condiciones señaladas en el artículo 76.2

Elementos salientes.

Son los elementos fijos, no habitables ni ocupables, de carácter constructivo u ornamental, que formando parte de la fachada o como añadidos a ella sobresalen de la superficie de fachada.
Tienen esa condición, entre otros, los zócalos, pilastras, impostas, ménsulas, aleros cornisas y marquesinas.

Vuelos.

Son los elementos habitables u ocupables, que sobresalen de la superficie de fachada, cuando la fachada coincide con la alineación máxima de la edificación. Los vuelos pueden ser cerrados, o abiertos.
Son vuelos cerrados los miradores, ya sean de carpintería o de fábrica, caracterizados por poseer cerramiento completo en todos sus lados, aún cuando sean practicables.

Son vuelos abiertos, los que tienen total o parcialmente abiertos sus lados, como las terrazas y balcones. Incluidos aquellos que dispongan cierres ligeros facilmente desmontables en sus lados.

Patioak.

Patio esaten zaie bizigarritasun-baldintzak bermatzearren eraikuntzen barnean zabaltzen diren espazioei edo fatxadara zabalduak izan daitezkeenei.

Instalazioen elementu teknikoak

Eraikinaren zerbitzu komuna osatzen duten zati guztiak biltzen dira izenburu honen pean. Esate baterako, tximiniak, aireztapen edo hozteko sistemen hodiak, irrati eta telebista antenak, igogailuaren tresnak, tximistorratzak, arropa zabaltzeko euskarriak, arropa lehorgailuak etab.

2. Eraikinen solairuen sailkapena

Sestra gaineko koefizientea.

Solairu baten sestra gaineko koefizientea (Sgk) honakoa da: unitatea, solairuaren itxiturak lursailarekiko kontaktuan duen azaleraren (Lka) batukariaren eta solairuaren itxitura-azalera osoaren (Ao) batukariaren arteko kozientea kenduta (azalera horiek proiekzio bertikalean neurtuta).

$$Sgk = 1 - \frac{\sum Lka}{Ao}$$

Sestra gaineko solairua.

Sestra gaineko koefizientea 1 duena sestra gaineko solairua da.

Sestrapeko solairua.

Sestra gaineko koefizientea 0 duena sestrapeko solairua da.

Erdisotoko solairua.

Sestra gaineko koefizientea 0,5 eta 1 artean duena erdisotoko solairua da.

Patios.

Se denominan patios a los espacios que se abren en el interior de los edificios o que pueden ser abiertos a la fachada con el objeto de garantizar las condiciones de habitabilidad.

Elementos técnicos de las instalaciones

Bajo esta denominación quedan comprendidas aquellas partes integrantes de servicios comunes del edificio tales como: chimeneas, conductos del sistema de ventilación, de refrigeración, antenas de radio y televisión, maquinaria de ascensores, pararrayos, soportes para el tendido y secadores de ropa y otros.

2. Clasificación de las plantas de los edificios

Coeficiente sobrerasante.

Se entiende por coeficiente sobrerasante de una planta (Cs) a la unidad menos el cociente entre el sumatorio de la superficie de cerramiento de esa planta que está en contacto con el terreno (Sct) y el sumatorio de la superficie total de cerramiento de dicha planta (St), medidas en proyección vertical.

$$Cs = 1 - \frac{\sum Sct}{St}$$

Planta sobrerasante.

Se entiende por planta sobrerasante aquella planta cuyo coeficiente sobrerasante es la unidad.

Planta bajorasante.

Se entiende por planta bajorasante aquella planta cuyo coeficiente sobrerasante es cero.

Planta semisótano.

Se entiende por semisótano aquella planta cuyo coeficiente sobrerasante está comprendido entre 0,5 y 1.

Beheko solairua.
Oinezko sarbide zuzena kokatzen den solairua da.

Baldintza hori betetzen duten solairuak bi edo gehiago direnean, kotaz azpien dagoena hartuko da beheko solairutzat.

Goiko solairua.
Beheko solairuaren gainetik dagoena da.

Estalkipeko solairua.
Estaltzeko solairuaren edo taularen azpian geratzen den solairua da, bere altuera, fatxada azaleran, 1,80 m-tik beherakoa izango da.

Altuera edo solairuarte gehigarria
.
Solairu osagarria da. Hainbat lursail motatan baino ez da baimentzen, beheko solairuetako lokaletan. Horretarako, ezinbestekoa izango da lokalean erabilgarri dagoen altuera libreak bi erabilera maila gainjartzen uztea -era berean, hirigintzako udal ordenantzetan horren gainean xedatutako altuera libreko baldintzak bete beharko dira-, eta, solairuarte edo goitegiak eta lokalak unitate banaezina osatu beharko dute.

Planta baja.
Se entiende por planta baja la planta por la que se produce el acceso peatonal directo al edificio desde el exterior.

En los casos de existencia de dos o más plantas que cumplan la condición anterior, se entenderá como planta baja la situada a cota inferior.

Planta alta.
Es toda aquella situada por encima de la planta baja.

Planta de bajocubierta.
Es aquella situada directamente bajo el forjado o tablero del tejado, cuya altura en la superficie de fachada sea inferior a 1,80 m.

Altillo o entreplanta adicional

Es aquel piso o forjado adicional, , que se autoriza, en determinados tipos de parcelas, en los locales de planta baja. Para ello serán requisitos necesarios que la altura libre disponible en el local permita superponer dos niveles de utilización -que a su vez, cumplimenten las condiciones de altura libre establecidas al respecto en las ordenanzas urbanísticas municipales- y, que el altillo constituya una unidad indivisible con el local en el que se sitúa.

53 artikulua. Hirigintza-eraikigarritasuna zenbatzeko irizpideak.

1. Azalera eraikia.
Azalera eraikia egiaz egindako edo egiteko sabai-azalera da, proiekzio horizontalean neurtua, hain zuzen 2/2006 Legeak 35.1 artikuluan eraikigarritasun fisikoari buruz ematen duen definizioarekin bat.

Hori neurtzeko, kasuan kasuko lokal, etxebizitza, trastetegi, garaje edo eremuko sabaiak okupatzen duen azalera kalkulatuko da, kanpotik bereizten duen itxituraren perimetroak -honen kanpoaldeak- edo, bestela, azalera horrek beste lokal batzuekin partekatzen dituen itxituren ardatzek mugatua.

2. Sestra gaineko azalera eraikia.
Sestra gaineko azalera eraikia neurtzeko, solairu

Artículo 53. Criterios para el cómputo de la edificabilidad urbanística.

1. Superficie construida.
Se entiende por superficie construida la superficie de techo realmente ejecutada o a ejecutar, medida en proyección horizontal, coincidiendo con la definición de edificabilidad física del art 35.1 de la Ley 2/2006.
Para su medición se calculará la superficie ocupada por el techo del local, vivienda, trastero, garaje o ámbito que se trate, delimitada por el perímetro definido por la cara exterior de sus cerramientos con el exterior, o por el eje de sus cerramientos compartidos con otros locales.

2. Superficie construida sobrerasante.
La edificabilidad sobrerasante se medirá

bakoitzeko azalera eraikiaren batukaria kalkulatu eta sestra gaineko koefizientearekin biderkatuko da.

3. Sestrapeko azalera eraikia.

Sestrapeko azalera eraikia neurtzeko, eraikigarritasun fisikoaren eta sestra gaineko azalera eraikiaren arteko aldea kalkulatuko da.

4. Hirigintza-eraikigarritasuna.

Hirigintza-eraikigarritasuna 2/2006 Legeak 35.3 artikuluan definitua da.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, ondoko azalera eraiki hauek ez dira irabazizkotzat hartuko:

-EAEKp etxebizitzen eta zuzkidura bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko, 80/2022 Dekretuaren IV. Eranskinean adierazitakoak.

- Apaindurako elementuen eta elementu funtzionalen (teilatu-hegal eta abarren) azpian dagoena.
- Une oro jendearentzat zabalik daudenak, hala nola arkupeak, etab.
- Altuera librea 1,80 m-tik beherakoa den lurzoruarena.
- Sarbide eta instalazio-gela komunetarako den azalera, banaketa horizontala egingo den eraikuntzetan.
- Itxitura bertikaletan sartzen diren isolamendu termikoen edo sistema pasiboen lodierari dagokiona, horiek egun dauden eraikuntzen energia-eskaera murriztea dakartenean, edo EKTn ezarritako oinarrizko baldintzekiko aldearena planta berriko eraikuntzak direnean.
- Igogailuek eta irisgarritasuna unibertsalerako elementuek okupatzen dutena.
- Ø > 1'50m-ko patioak eta instalazioetako hobiak.
- Baimendutako goitegi edo solairuarteak.
- Bizikleta eta umeentzako orgatxoak aparkatzeko komunerako azalerak eta bizilagunen komunitateko bilera-gelentzako direnak.
- Plan hau onartu eta indarrean sartu aurretik zeuden eraikinetan, Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen49. artikuluak eta 2015eko 7/2015 Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bateginaren

calculando el sumatorio de la superficie construida de cada planta multiplicada por su correspondiente coeficiente sobrerasante.

3. Superficie constuida bajorasante.

La edificabilidad bajorasante se medirá calculando la diferencia entre la edificabilidad física y la superficie construida sobrerasante.

4. Edificabilidad urbanística.

Se entiende por edificabilidad urbanística la definida en el art 35.3 de la Ley 2/2006.

A los efectos del párrafo anterior no se entenderá que tienen carácter lucrativo las siguientes superficies construidas:

Los indicados en el Anejo IV del Decreto 80/2022 de 28 de junio, de regulación de las condiciones mínimas de habitabilidad y normas de diseño de las viviendas y alojamientos dotacionales de la C.A.P.V.

- La situada bajo elementos ornamentales y funcionales como aleros, etc.
- Aquellas abiertas permanentemente al uso público como porches, etc.
- La correspondiente al suelo en que la altura libre sea inferior a 1,80 m.
- La destinada a los accesos y cuartos de instalaciones comunes en edificios que vayan a ser objeto de división horizontal.
- La correspondiente al espesor de los aislamientos térmicos o sistemas pasivos incluidos en los cerramientos verticales que produzcan una reducción de la demanda energética de los edificios existentes, o a la diferencia con respecto a los requisitos básicos establecidos en el CTE ,en edificios de nueva planta.
- La ocupada por ascensores y elementos destinados a la accesibilidad universal.
- Los patios y conductos de instalaciones de Ø > 1'50m.
- Los altillos o entreplantas autorizadas.
- Las destinadas a aparcamientos colectivos de bicicletas y carritos infantiles, así como la destinada a salas de reunión de comunidades de vecinos.
- En los edificios existentes con anterioridad a la aprobación y entrada en vigor del presente Plan, con arreglo a lo establecido en el artículo 49 de la Ley 3/2015, de Vivienda, y en el artículo 24 del Texto Refundido de la

24.artikuluak ezarritakoa kontutan hartuta, ez dira hirigintza-eraikigarritasun gisa zenbatuko:

- Irisgarritasun unibertsala (igogailuak edo beste elementu batzuk) bermatzeko ezarri beharrekoezinbesteko eraikuntzak eta elementuak.
- Energia eraginkortasuna bermatzeko eraikinaren inguratzailean egin beharreko esku-hartzeak (eraikin osoa, teilatua edo fatxada osoa hartzen dituztenak).
- Fatxadei edo estalkiei atxikitako gailu bioklimatikoak instalatzea, eraikinaren berokuntzaren edo hoztearen urteko energia-eskaria gutxienez ehuneko 30 murrizten badu.
- Erregai fosilezko galdarak ordeztea dakarten energia instalazio zentralizatuak edo eguzki-kaptadore edo bestelako energia berriztagarriko elementu zentralizatuak ezartzeko esku-hartzeak, eraikinaren energia primario ez-berriztagarriaren urteko kontsumoa gutxienez ehuneko 30 murrizten badute.
- Eraikin osoan ur-kontsumoa gutxienez ehuneko 30 murriztea lortzen duten eremu komunetan edo etxebizitzetan obrak egitea.

Eraikin horiek eraitsi eta ordezten badira (edo horien pareko jarduketa egiten bada), eraikin eta instalazio horiek ezarri aurretik zuten eraikigarritasuna hartuko da kontuan.

Ley 7/2015, de Suelo y Rehabilitación Urbana, no se computarán como edificabilidad urbanística:

- Construcciones y elementos imprescindibles para garantizar la accesibilidad universal (ascensores uotros elementos).
- Intervenciones en la envolvente del edificio para garantizar la eficiencia energética (quecomprenden la totalidad del edificio, el tejado o la fachada).
- Instalación de dispositivos bioclimáticos adosados a fachadas o cubiertas que reduzcan al menos en un 30 por ciento la demanda energética anual de calefacción o refrigeración del edificio.
- Intervenciones para la implantación de instalaciones de energía centralizada o captadores solares u otros elementos de energía renovable que supongan la sustitución de calderas de combustible fósil, que reduzcan al menos en un 30 por ciento el consumo anual de energía primaria no renovable del edificio.
- Realización de obras en zonas comunes o viviendas que consigan reducir al menos en un 30 porciento el consumo de agua en el conjunto del edificio.

En caso de demolición y sustitución de estas edificaciones (o actuación equivalente), se tendrá en cuenta la edificabilidad que tenían antes de su implantación.

5.- Hirigintza-eraikigarritasunaren zenbatekoa.

Aurreko atalean ez dauden azalera eraikiak hirigintza-eraikigarritasuna moduan zenbatuko dira. Hauek, sestragainekoak eta sestrapekoak izan daitezke.

5. Cómputo de la edificabilidad urbanística.

Computarán como edificabilidad urbanística las superficies construidas no incluidas en los apartados anteriores, pudiendo ser sobrerasante o bajorasante.

54 artikulua. Eraikinen altuera neurtzeko irizpideak

Irizpide orokortzat, eraikuntza baten altuera magnitude batez adierazten denean, bere altuera honako erreferentzia hauen arteko neurria izango

Artículo 54. Criterios de medición de la altura de la edificación.

Como criterio general cuando la altura de un edificio no venga expresada en una magnitud, su altura será la distancia entre las referencias

da.

Dagokion orri grafikoan adierazitakoa hartuko da beheko erreferentziatzat, ez izatekotan, eraikinaren lerrokadurak sestra gainetik duen punturik basuena izango da.

Fatxadaren azaleraren eta teilatuaren beheko planuaren arteko puntua hartuko da goiko erreferentzia gisa.

Industria-pabilioien kasuan, eraikuntzaren altueratzat hartzen da estalkia elkartzen den eta/edo urak husten diren eraikuntza-soluzioa eta eraikinaren altxaera errematatzen eta ezkutatzen dituen petoaren gailurra.

3.Mehelinen arteko eraikinetan, eraikinen fatxada bakoitzeko altuera neurtzeko, eraikuntza lerrokaduraren batez besteko puntuaren maila hartuko da beheko erreferentziatzat; goiko erreferentziatzat eta goiko erreferentziatzat lehengo kasuarena.

4.Solairu desberdinen altuera neurtzeko:

Erdisotoetan eta behe solairuetan, horien sabai oinaren goiko aldeko maila hartuko da goiko erreferentziatzat. Beheko erreferentzia, aldiz, aurreko idazpuruetanan eraikinen altuerarako aipatutako berbera izango da.

Goiko oinetan, lurzoru oinaren eta sabai oinaren goiko aldeen artean neurtuko da altuera.

Ganbara eta estalkipeetan, fatxadaren altuera neurtzeko, lurzoru oinaren goiko aldea hartuko da beheko erreferentziatzat; goiko erreferentziatzat, aldiz, eraikinen altuera neurtzeko oro har xedatutako erreferentzia.

siguientes:

Como referencia inferior el punto señalado en la hoja gráfica correspondiente y, en su ausencia, el nivel del punto sobrerasante más bajo de la alineación de edificación.

Como referencia superior, el punto de intersección de la superficie de fachada con el plano inferior del tejado.

En el caso de pabellones industriales, se considera altura de edificación la coronación del peto que remata y oculta la solución constructiva del encuentro de la cubierta y/o la evacuación de aguas, con el alzado de la edificación.

3. En los edificios situados entre medianeras, la altura de edificación en cada una de sus fachadas se medirá tomando como referencia inferior el nivel del punto medio de la alineación de edificación, y la misma referencia superior que en el caso anterior.

4. Para la medición de la altura de las distintas plantas:

En los semisótanos y plantas bajas se tomará como referencia superior el nivel de la cara superior del forjado de techo de los mismos, siendo la referencia inferior la señalada en los epígrafes anteriores para la altura de edificación.

En las plantas altas, la altura se medirá entre caras superiores de los forjados de suelo y techo.

En desvanes y bajocubiertas, la altura de fachada se medirá tomando como referencia inferior la cara superior del forjado de piso y como referencia superior la establecida con carácter general para la medición de la altura de edificación.

IV.2 KAPITULUA.

HIRI LURZORUARI APLIKATZEKO XEDAPEN ETA ORDENANTZAK

55 artikulua. Bizitegi lursailetako eraikinen forma arautzeko sistemak.

1. Eraikinaren lerrokaduretan oinarritutako antolamendua (1B lursailak).

Guztiz finkatutako urbanizazio garapen zonetako lursailetan aplikatzen da. Eraikuntzak etxadiaren kanpoaldeko ertza okupatzen du, kale bilbearen espazioa definitzen duen fatxada jarraitua osatuz. Eraikinen profila nahiko uniformea da, eta lursailen antolamendua etxadiaren kanpoaldeko fatxadarekiko -mehelinak- perpendikularra. Bigarren mailako fatxadak beste kale batera ematen du, lorategi batzuetara, hain justu.

Lursail hauetan, azalera eraikigarria ez da espresuki arautzen, eraikinaren formaren araudiaren bitartez zeharka baizik.

Aipatutako araudia, hirigintza-araudi partikularreko orri grafikoetan definitutako eraikuntza lerrokaduretatik -derrigorrezkoa gehienezkoa eta mehelina- eta eraikinaren euskarri sestretatik abiatuta formulatzen da, eta lehendik dauden eraikuntzei eusten die.

Eraikuntzak fatxada azalera eta mehelinetatik (baldin badaude) baimendutako gehienezko eraikuntza altueraraino -uniformea etxadi osoarentzat, nahiz eta kasu batzuetan zehaztapen bakanak ezartzen diren lursail jakin batzuentzat- dagoen bolumen osoa edo zati bat okupatuko du. Altuera horretatik gora, eta fatxada nagusiaren eta bigarren mailakoaren artean, eraikinen profilaren araberako estalkiaren azalera mugatzen da.

Berariazko araudiak ezartzen dira hegada, elementu irten eta atzeraemanguneei dagokienez, baita eraikuntza bolumenaren barnealdean barne patioak irekitzeari dagokionez ere.

Lursail hauetan, eraikuntza esku-hartze aukerak

CAPÍTULO IV.2

DISPOSICIONES Y ORDENANZAS APLICABLES AL SUELO URBANO.

Artículo 55. Sistemas de regulación de la forma de la edificación en las parcelas residenciales.

1. Ordenación regulada en base a alineaciones de edificación (Parcelas R1).

Se aplica a parcelas situadas en zonas con desarrollos edificatorios y de urbanización plenamente consolidados, en las que la edificación ocupa el borde exterior de la manzana, constituyendo una fachada continua que define el espacio de la trama de calles, con un perfil de edificación relativamente uniforme, la parcelación dispuesta perpendicularmente a la fachada exterior de la manzana -medianeras-, y fachada secundaria definida, con frente a otra calle, a jardines, total o parcialmente conformados.

En ellas, la superficie edificable no se regula de forma expresa, sino indirectamente a través de la reglamentación de la forma de la edificación.

Dicha reglamentación se formula a partir de las alineaciones de edificación –obligatoria, máxima y medianera- y de las rasantes de apoyo del edificio en el terreno, definidas el las hojas gráficas de la normativa urbanística particular las cuales consolidan las de las construcciones existentes.

La edificación ocupará la totalidad o parte del volumen comprendido entre las superficies de fachada y medianeras resultantes (si las hubiera) hasta la altura de edificación máxima autorizada -uniforme para el conjunto de la manzana, si bien en algunos casos se establecen determinaciones singularizadas para determinadas parcelas-, a partir de la cual, y entre la fachada principal y secundaria, se limita por la superficie de cubierta, configurada con arreglo al perfil edificatorio.

Se establecen regulaciones específicas respecto a vuelos, elementos salientes y retranqueos, así como respecto a la apertura de patios interiores en el interior del volumen de edificación.

En estas parcelas, las posibilidades de interven-

Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan bildutako moten arabera arautuko dira. Dekretu hori, hain zuzen, Urbanizatutako eta Eraikitako Ondarea lehengoratzeko babestutako jardunei buruzkoa da.

Ordezte edo eraikuntza berriko esku-hartzeetan, eraikinaren formaren oinarrizko erreferentzia geometriko eta parametro erregulatzaile guztiak, sestrak eta kasu zehatzen batean eraikuntza lerrokadurak izan ezik, kalifikazio xehakatuko zehaztapen lotesletzat hartuko dira eta, ondorioz, Xehetasun Azterlanek ezin izango dituzte aldatu.

2. Proiektu bolumetriko berezituetan oinarritutako antolamendua (2B eta 3B).

Eraikuntza eta hirigintza garapen desberdinak dituzten lursailei aplikatzen zaie. Lehendik dauden bizitegi eraikuntza gehienei eustea proposatzen da. Eraikuntza morfologia anitzeko atxikitako edo bakartutako blokeetan oinarritzen da, funtzionalki arrazionalizatutako etxebizitza mota batean -ikuspegi eta eguzki hartze baldintza egokiak, programa funtzionalaren tipifikazioa, modulukako antolamendu errepikakorra-.

Bi oinarrizko aldaera bereizten dira aipaturiko morfologiari dagokionez:

- Bloke linealeko Lursailak. Eraikuntza bloke lineal edo antolamendu irekiko dorre ereduan oinarritzen da. Lehengo moduan eutsi zaien eraikinek eta tipologia horren arabera garatuko diren bizitegi zonek osatzen dituzte batik bat.

- Dentsitate apaleko eta eraikuntza berriko lursailak, familia bakarreko atxikitako etxebizitzez osatuak. Familia bakarreko etxebizitzekin bat ez datozen aldaketa tipologikoak ere onartzen dira, baita bloke librea ere.

Bloke linealeko lursailetan, eraikuntza berria honako ordenantza hauetan ezarritako eraikuntza eta eraikigarritasunen baldintzetara egokituko da.

ción edificatoria, se regularán según las modalidades recogidas en el Decreto 317/2002 de 30 de Diciembre, del Gobierno Vasco, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado.

En las intervenciones de sustitución o nueva edificación, la totalidad de las referencias geométricas básicas y parámetros reguladores de la forma de la edificación, con excepción de las rasantes, y en algún caso puntual expresamente señalado, de las alineaciones de edificación, se considerarán determinaciones de calificación pormenorizada vinculantes, por lo que no podrán ser modificados por estudios de detalle.

2. Ordenación regulada en base a proyectos volumétricos particularizados. (Parcelas R2 y R3).

Se aplica a parcelas situadas en zonas con situaciones de desarrollo edificatorio y de urbanización diversas, en las que se propone consolidar la mayoría de los edificios residenciales existentes, y en las que las construcciones responden y deberán responder a una tipología edificatoria y de vivienda racionalizada funcionalmente –condiciones de vistas y soleamiento adecuadas, tipificación del programa funcional, organización modular repetitiva- a base de bloques aislados, adosados de morfología diversa o aislados.

Se distinguen dos variantes básicas respecto a dicha morfología:

- Parcelas de Bloque lineal cuya edificación responde a una tipología de bloques lineales o torres en ordenación abierta, constituidas principalmente por las construcciones que se consolidan, y por zonas residenciales que se desarrollarán con arreglo a esa tipología.

- Parcelas de bajo desarrollo y de nueva edificación, constituidas por viviendas unifamiliares adosadas, admitiéndose las variantes tipológicas que no se correspondan exclusivamente con las unifamiliares, con jardín en las tres fachadas, así como el bloque exento.

En las parcelas de bloque lineal, la nueva edificación se ajustará a las condiciones de edificación y edificabilidad establecidas en las presentes ordenanzas.

Lursail hauetan, eraikuntza berria ondorengo irizpideen arabera arautuko da:

- Eraikuntza nagusiko lerrokadura derrigorrez bete beharko da. Besteak, aldiz, ezarritako tolerantzien eta azalera eraikigarriarentzat ezarritako gehienezko mugen barruan aldatu ahal izango da.
- Altuera, profila eta baimendutako etxebizitza kopuru orientagarria definituko dira.
- Zehaztapen hauetatik abiatuta, izaera orokorrez ezarritako gainerako eraikuntza baldintzak aplikatuko dira.

Xehetasun Azterlanek ezin izango dute inolaz eraikuntza lerrokadura nagusia aldatu.

3. Bizitegi erabilerarako lursailei izaera orokorrez ezarriko zaizkien sestra eta eraikuntzaren euskarri mailei buruzko baldintzak.

Urbanizatuta dauden eremuetan, eraikuntzen sestra eta euskarri mailei eutsiko zaie; hala eta guztiz ere, berriz urbanizatzeko esku-hartzeetan egokitzapenak egin ahal izango dira urbanizazio lanen proiektuetarako egokitzapen aukeren arabera.

Eremu edo elementu urbanizatu berrietan, urbanizazio proiektuek maila eta sestren behin betiko konfigurazioa definituko dute, hirigintza-araudi partikularreko orrietan espresuki definitzen diren puntu adierazgarrienen mailak erreferentziatzat hartuta.

56 artikulua. Bizitegirako 1B Alde Zaharreko lursailei aplikatzeko eraikuntza baldintzak.

Hirigune historikoa.
Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren (1992-09-08an behin betiko onartua) eta uztailaren 24ko 157/2012 Dekretuaren (Oñatiko (Gipuzkoa) Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondasun gisa deklaratzen duena) bidez berezko hirigintza-araudia du, eta babes-araubidea ezartzen du (2012-08-09ko EHAA, 155. zk.), 1. eranskinari (Mugaketa), 2. eranskinari (Deskribapena) eta III. eranskinari (Babes-araubidea) dagokienez. Biak dira aplikagarriak, berrikusi eta eguneratzen ez diren bitartean. Berrikuspen horrek bat etorri beharko du, besteak

En estas parcelas, la nueva edificación se regula con arreglo a los siguientes criterios:

- Se define la alineación de edificación principal con carácter obligatorio. Las demás podrán modificarse dentro de las tolerancias establecidas, y de los límites máximos establecidos para la superficie edificable.
- Se definen la altura, el perfil y el número orientativo de viviendas autorizadas.
- A partir de estas determinaciones se aplicarán el resto de las condiciones de edificación establecidas con carácter general.

Los Estudios de Detalle no podrán modificar en ningún caso la alineación de edificación principal.

3. Condiciones respecto a las rasantes y niveles de apoyo de la edificación aplicables con carácter general a las parcelas de uso residencial.

En las áreas ya urbanizadas se mantienen los niveles y rasantes de apoyo de las edificaciones, si bien, en las intervenciones de reurbanización se podrán introducir reajustes dentro de las posibilidades de adaptación establecidas con carácter general para los proyectos de obras de urbanización.

En las áreas o elementos de nueva urbanización, los proyectos de urbanización definirán la configuración definitiva de los niveles y rasantes, tomando como referencia los niveles de los puntos más significativos que se definen de forma expresa en las hojas gráficas de la normativa urbanística particular.

Artículo 56. Condiciones de edificación aplicables a las parcelas R1, residencial casco antiguo.

Centro histórico.
Dispone de normativa urbanística propia a través del Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico, aprobado definitivamente el 08/09/1992 y el Decreto 157/2012, de 24 de julio, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Oñati (Gipuzkoa) y que establece su régimen de protección (BOPV nº 155, de 09/08/2012) en cuanto al Anexo 1: Delimitación, Anexo 2: Descripción y Anexo III: Régimen de Protección. Ambos son de aplicación en tanto no se proceda a su revisión y actualización. Dicha revisión deberá entre otros

beste, Irisgarritasuna Sustatzeko Legearekin, Eraikuntzaren Kode Teknikoarekin eta ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuarekin. Babes-araubide horretan sartutako ondasunei aplikatu beharreko hirigintza-araubideak Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 33. eta 46. artikuluetan araututako baimenak beharko ditu.

Era berean, kontuan hartu beharko da 853/21 Errege Dekretua, urriaren 5ekoa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilentzia Planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak arautzen dituena.

57 artikulua.Bizitegi intentsiboa 2B bizitegirako lursailei aplikatzeko eraikuntza-baldintzak.

1. Lerrokadurak.

55 artikuluaren 2 idazpuruan ezarritako baldintzak aplikatuko dira.

Soto edo erdisotoen solairuetako perimetroak ezin izango du inoiz adierazitako esparrua gainditu.

2.Lurzatiketak.

Hainbat sarbide gunetarako derrigorrezko garaje komuna duten eraikuntzetan, ukitutako eremu osoak lursail bat osatuko du hirigintza eraginetarako. Hala ere, izapidetuko diren xehetasun azterlanek, eraikuntza unitate bereiziak finkatu ahal izango dituzte eta, kasu horretan, multzoaren funtzionalitate orokorra ziurtatu beharko da egikaritzearen erdiko faseetan. Bestalde, lursaila azpizatitu ahal izango da baldintza orokorrak betetzen dituzten garajeetarako sarbide independenteak bideragarri gertatzen diren kasuetan.

3. Eraikuntza altuerak eta profilak.

Lehendik dauden altuera eta profilei eutsiko zaie.

Eraikuntza berriko kasuetan, behe solairua, goiko lau solairu eta bosgarren solairu teilatupea dituzten eraikintzako batez besteko profila ezartzen da izaera orokorrez; hirigintza-araudi partikular bakoitzean haien altuerak zehazten dira.

Adierazitako sestren gaineko profilaz gain, estandarrak betetzeko, beharrezko soto-solairuak egin beharko dira, oro har, baita solairu gehigarriak baimendu ere.

aspectos, coincidir la Ley para la Promoción de Accesibilidad, el Código Técnico de la Edificación y el Decreto 80/2022 de 28 de junio. El régimen urbanístico aplicable a los bienes incluidos en el citado Régimen de Protección requerirá las autorizaciones reguladas en los artículos 33 y 46 de la Ley 6/2019 de Patrimonio Cultural Vasco modificada por la Ley 14/2023 . Así mismo, deberá tenerse en cuenta el Real Decreto 853/2021. de 5 de octubre, por el que se regulan los programas de ayuda en materia de rehabilitación residencial y vivienda social del Plan de Recuperación, Transformación y Resilencia.

Artículo 57. Condiciones de edificación aplicables a las parcelas R2, residencial intensivo.

1. Alineaciones.

Serán de aplicación las condiciones generales establecidas en el epígrafe 2 del artículo 55.

El perímetro en planta de los sótanos y semisótanos, no podrá sobresalir en ningún caso del ámbito señalado.

2. Parcelación.

En los edificios con sótanos destinados obligatoriamente a garajes comunes a varios núcleos de acceso, la totalidad del ámbito afectado constituirá una parcela a efectos urbanísticos, si bien los estudios de detalle que se tramiten podrán establecer su eventual subdivisión en unidades de edificación independientes, debiéndose asegurar en tal caso la funcionalidad general del conjunto en las fases intermedias de ejecución. Eventualmente podrá autorizarse la subdivisión de la parcela en el caso de que resulte viable disponer accesos independientes a los garajes que cumplimenten las condiciones generales exigidas.

3. Alturas y perfiles de edificación.

Se consolidan las alturas y perfiles existentes.

Se establece con carácter general, para los casos de nueva edificación, un perfil medio de edificación de planta baja, cinco plantas y quinta planta bajocubierta, de acuerdo a la normativa urbanística particular correspondiente.
Además del perfil sobre rasantes señalado, para el cumplimiento de los estándares, será de obligado cumplimiento la ejecución con carácter general de las plantas de sótano necesarias, incluso autorizándose plantas adicionales.

Sarbide bertikal independente atxikia duten elementuz osatutako blokeen kasuetan, elementu bereizi bakoitzari aipatutako gehienezko altuera eta profilak ezarriko zaizkio.

Aurreko ataletan ezarritakoari kalterik egin gabe, aipatutako baldintzak gainditzen dituzten 2B lursailetako lehendik dauden eraikuntzei eutsiko zaie.

4. Estalkiak.

Estalkiak baimendutako profilaren arabera eraikiko dira fatxada guztietan, fatxada azaleretan eraikinen altuera mugatzen duen lerro horizontaletik hasita.

Baimendutako estalki profiletik honako elementu hauek bakarrik irten ahal izango dira: tximiniak, aireztapen edo hozteko sistemen hodiak, argizuloak, 0,40 metrotik beherako estalkiarekiko paralelo diren sabaileihoak, irrati eta telebista antenak, eskailera edo igogailuaren kaxaren atalak, 76. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten ganbarak, tximistorratzak eta ezinbestean estalkitik gora irten behar duten instalazioetako gainerako elementu teknikoak.

5. Hegadak.

Eraikin berrietan, lehendik zegoen eraikin bat ordezten badute edo ez, hegadak eraiki ahal izango dira honako baldintza hauek errezpetatuez gero:

- Sakonera ez da 1,00 m baino handiagoa izango, 8,00 m-ko zabalerako kaleetan. Horrez gainera, 0,10 m gehitu ahal izango da kale-aren zabalera metro gehigarri bakoitzagatik, 2 m-ra gehienez iritsi arte, baldin eta ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzen bada.
- Hegadak itxiak (begiratokiak, galeriak eta antzekoak) ala irekiak (balkoiak, terrazak eta antzekoak) izan daitezke.
- Hegadaren edozein punturen eta aldameneko finkaren arteko gutxieneko distantzia 2,00 metrokoa izango da.
- Udalak eraikineko fatxadetan hegadak banatzeko Xehetasun-azterlan bat izapidetzea eskatu ahal izango du, bere iritziz, hori eskatzen duten arkitektura-irtenbide bereziak daudenean.
- Era berean, fatxadaren baldintza estetikoak eta

En los casos de bloques conformados por elementos con acceso vertical independiente adosados, se aplicarán los límites de altura y perfil máximos señalados a cada uno de los elementos diferenciados que los compongan.

Sin perjuicio de lo establecido en los apartados anteriores se consolidan los edificios existentes en las parcelas R2 que superen dichas condiciones.

4. Cubiertas.

Las cubiertas se conformarán, en todas las fachadas del edificio de acuerdo con el perfil autorizado a partir de la línea horizontal que determina la altura de edificación en las superficies de fachada.

Del perfil autorizado de cubierta sólo podrán sobresalir las chimeneas, conductos del sistema de ventilación, o refrigeración, claraboyas, lucernarios paralelos a la superficie cubierta y de altura inferior a 0,40 m., antenas de radio y televisión, partes de la caja de escalera o del ascensor, buhardillas en los términos establecidos en el artículo 76,pararrayos y demás elementos técnicos de las instalaciones que, necesariamente, deban elevarse sobre la cubierta.

5. Vuelos.

En los nuevos edificios, que sustituyan o no a un edificio preexistente, podrán construirse vuelos bajo las siguientes condiciones:

- Su profundidad no excederá de 1,00 m. en las calles de anchura igual a 8,00 m., pudiendo aumentar 0,10 m. por cada metro de anchura adicional de la calle, hasta un máximo de 2 m.siempre y cuando se garantice el soleamiento en las condiciones del Decreto 80/2022 de 28 de junio.
- Los vuelos podrán ser cerrados (miradores, galerías y similares) o abiertos (balcones, terrazas y análogos).
- La distancia mínima entre cualquier punto de un vuelo y la finca colindante será, al menos de 2,00 m.
- El Ayuntamiento podrá exigir la tramitación de un estudio de detalle para la distribución de los vuelos en las fachadas de un edificio cuando, a su juicio, existan soluciones arquitectónicas singulares que lo requiera.

arkitektonikoak erabakitzeko ere beharko da.

- Así mismo lo requerirá, para el acuerdo de las condiciones estéteicas y arquitectónicas de la fachada.

6. Atzeraemanguneak.

Kale eta espazio publikoei begira dauden fatxadetan, beheko solairuko fatxadak ezarritako lursail lerrokadura okupatuko du kasu guztietan, eta behebarruak edo arkupeak eratzea onartuko da bakarrik. Hauek derrigorrezkoak izango dira hirigintza-araudi partikularreko orrietan espresuki adierazten diren kasuetan.

Eraikuntzen fatxada nagusian, behe solairua ukituko ez duten kanpo patioak bakarrik onartuko dira.

6. Retranqueos.

En el frente a las calles y espacios públicos la fachada en planta baja deberá ocupar en todo caso la alineación de parcela establecida, admitiéndose exclusivamente la formación de zaguanes o porches. Estos serán obligatorios en los casos expresamente señalados en las hojas gráficas de la normativa urbanística particular.

En la fachada principal de los edificios sólo se admitirá la formación de patios exteriores que no podrán afectar a la planta baja.

7. Elementu irtenak.

Hegadak dituzten fatxada zatietan, hegalen sakonerak hegadak erregulatzeko ezarritako arau berberak beteko ditu, eta azken hauetatik 0,20 m gehienez irtengo dira.

Hegadarik ez dagoen zatietan, 1,00 m-ko sakonera izango du, gehienez ere.

Elementu bakar batek ere ezingo du eraikinarentzat finkatutako altuera gainditu.

7. Elementos salientes.

En los tramos de fachada en los que se dispongan vuelos, la profundidad de los aleros cumplirá las mismas reglas establecidas para la regulación de los vuelos, admitiéndose que sobresalgan de estos últimos un máximo 0,20 m.

En los tramos en los que no se dispongan vuelos, su profundidad máxima será de 1,00 m.

Ninguno de sus elementos podrá sobrepasar la altura de edificación establecida

8. Patioak.

Logelak argitzen dituzten barne patioetan, 0,30 aldiz altuerako (H) diametroko zirkulu bat inskribatu ahal izango da eta patioaren azalerak 2/8 Haren parekoa edo handiagoa izan beharko du. 3 metroko gutxieneko bat finkatzen da argi zuzenentzat eta diametroarentzat eta 12 m^2 azalerarentzat, solairu bakarreko familia bakarreko etxebizitzetan izan ezik; azken kasu honetan, argi zuzenentzako eta diametroarentzako gutxienekoa 2 metrokoa izango da eta 8 m^2 azalerarentzat.

Sukaldeak bai baina logelak argitzen ez dituzten barne patioetan, 0,20 Ha diametroko zirkulu bat inskribatu ahal izango da eta patioaren azalerak 2/10 Haren parekoa edo handiagoa izan beharko du.

Aurreko kasuko gutxienekoei eusten zaie argi zuzen, diametro eta patio azalerei dagokienez.

8. Patios.

En patios interiores a los que den dormitorios se debe poder inscribir un círculo de diámetro 0,30 veces la altura (H) y la superficie del patio habrá de ser igual o mayor a 2/8H. Se fija un mínimo para luces rectas y diámetro de 3 metros y de 12 metros cuadrados para la superficie, salvo en el caso de viviendas unifamiliares de una planta, en que los mínimos se reducen a 2 metros para las luces rectas y diámetro y de 8 m^2 para la superficie.

En patios interiores a los que den cocinas y no abran dormitorios se debe poder inscribir un círculo de diámetro 0,20 H y la superficie del patio habrá de ser igual o mayor a 2/10 H.

Se mantienen los mínimos para luces rectas, diámetro y superficie de los patios a los que abran dormitorios.

Gainerako barne patioetan, sukaldeak edo logelak argitzen ez dituztenetan, 0,15 Ha diametroko zirkulu bat inskribatu ahal izango da eta patioaren azalerak 2/20 Haren parekoa edo handiagoa izan beharko du.
3 metroko gutxieneko bat finkatzen da argi zuzen eta diametroarentzat eta 9 m2 azalerarentzat.

En patios interiores a los que no abran dormitorios ni cocinas se podrá inscribir un círculo de diámetro 0,15 H. y la superficie del patio habrá de ser igual o mayor a 2/20H.

Se fija un mínimo de 3 metros para luces rectas y diámetro y de 9 m. cuadrados para la superficie.

9.Sestra gainean eraiki gabeko erabilera publikoko espazioak
Oro har, sestra gainean eraiki gabeko espazioetan, estali gabeko kirol edo aisialdirako instalazioak ezartzea baimentzen da; betiere, sestra gainean inolako lan elementurik jarri gabe -igerilekuak edo jokorako pistak-.
Ordenantza hauetako 81artikuluan ezarritakoaren arabera, derrigorrezkoa izango da kasu guztietan beste finka batzuekiko bereizketetan eta bide publikoekiko mugan itxierak eraikitzea.

9. Espacios de uso privado no edificados sobre rasante.
Se autoriza con carácter general la disposición, en los espacios no edificados sobre rasante, de instalaciones deportivas o recreativas descubiertas y carentes de elementos de obra sobre rasante como piscinas o pistas de juego.
Será obligatoria, en todo caso la construcción de cierres, con arreglo a lo establecido en el artículo 81 de las presentes ordenanzas, en las separaciones con otras fincas, y en el límite con las vías públicas.

58 artikulua. Garapen txikiko 3B bizitegirako lursailei aplikatzeko eraikuntza-baldintzak.

Artículo 58. Condiciones de edificación aplicables a las parcelas R3, residencial de bajo desarrollo.

1. Lerrokadurak.
55 artikuluaren 2 idazpuruan ezarritako baldintzak aplikatuko dira.

Soto edo erdisotoen solairuetako perimetroak ezin izango du inoiz adierazitako esparrua gainditu.

1. Alineaciones.
Serán de aplicación las condiciones generales establecidas en el epígrafe 2 del artículo 55.

El perímetro en planta de los sótanos y semisótanos, no podrá sobresalir en ningún caso del ámbito señalado.

2.- Lurzatiketak.

Soto edo erdisoto unitarioa duen multzo bakoitzak lursail bat osatuko du hirigintza ondorioetarako, eraikuntza unitate bereizietan azpizatitzea baimentzen bada ere, sestra gaineko eraikuntzaren azpizatiketen arabera. Kasu honetan, multzoaren funtzionalitate orokorra ziurtatu beharko da egikaritze faseen artean. Halaber, lursaila azpizatitu ahal izango da baldintza orokorrak betetzen dituzten garajeetarako sarbide independenteak bideragarri gertatzen direnean.

2. Parcelación.

Cada uno de los conjuntos con un sótano o semisótano unitario constituirá una parcela a efectos urbanísticos, si bien se autoriza la subdivisión en unidades de edificación independientes, de acuerdo con las subdivisiones de la edificación sobre rasante, debiéndose asegurar en tal caso la funcionalidad general del conjunto en los intervalos entre las distintas fases de ejecución. Podrá, asimismo, autorizarse la subdivisión de la parcela, en el caso de que resulte viable disponer accesos independientes a los garajes, que cumplimenten las condiciones generales exigidas.

3. Baimendutako eraikuntza altuera eta profilak.

Ez da soto edo erdisoto gaineko gehienezko altuera jakin bat ezartzen; hirigintza-araudi partikular bakoitzak berea zehazten du.

3. Alturas y perfiles de edificación autorizados.

No se establece con carácter general una altura máxima sobre el sótano o semisótano, viniendo definida la misma en cada cuadro normativo.

Erdisotoak dagozkien hirigintza-araudi partikularretan ezarritako altuerara egokituko dira.

Baimendutako gehienezko eraikuntza profila honako hau izango da: erdisotoa, beheko solairua eta goiko bi solairu. Era berean, sotoko solairu bat eraikitzea ere posible izango da.

Los semisótanos se ajustarán a las condiciones de altura establecidas en la ordenanza urbanística particular correspondiente.
El perfil general de edificación será de planta semisótano, planta baja y dos plantas altas, admitiéndose no obstante una planta de sótano.

4. Eraikigarritasuna erregulatzen duten beste parametro batzuk.

Eraikigarritasun indizeak eta etxebizitza kopuru orientagarria horiei dagozkien hirigintza-araudi partikularretan ezartzen dira.

4. Otros parámetros reguladores de la edificabilidad.

Se remite a la ordenanza urbanística particular correspondiente el establecimiento de índices de edificabilidad y número orientativo de viviendas.

5. Estalkiak.

Baimendutako estalki profiletik honako elementu hauek bakarrik irten ahal izango dira: tximiniak, aireztapen edo hozteko sistemen hodiak, argizuloak, 0,40 metrotik beherako estalkiarekiko paralelo diren sabaileihoak, irrati eta telebista antenak, eskailera edo igogailuaren kaxaren atalak, 66. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten ganbarak, tximistorratzak eta ezinbestean estalkitik gora irten behar duten instalazioetako gainerako elementu teknikoak.

5. Cubiertas.

Del perfil autorizado de cubierta sólo podrán sobresalir las chimeneas, conductos del sistema de ventilación, o refrigeración, claraboyas, lucernarios paralelos a la superficie cubierta y de altura inferior a 0,40 m., antenas de radio y televisión, partes de la caja de escalera o del ascensor, buhardillas en los términos establecidos en el artículo 66,pararrayos y demás elementos técnicos de las instalaciones que, necesariamente, deban elevarse sobre la cubierta.

6. Hegadak.

Modu librean ezarri ahal izango dira, ezarritako gehienezko lerrokaduren barruan; nolanahi ere, atzerapen baldintzak errespetatu beharko dira, baldin eta dagokion hirigintza-araudi partikularretan baldintza horiek xedaturik badaude.

6. Vuelos.

Su disposición será libre, dentro de las alineaciones máximas establecidas, debiendo de respetar condiciones de retiro, si así estuvieran establecidas en normativa urbanística particular correspondiente.

7. Atzeraemanguneak.

Fatxada nagusiko beheko solairuan eraikuntza lerrokadura okupatu beharko da, nahiz eta beheberruak eratuko dituzten atzeraemanguneak ere onartuko diren. Libreak izango dira eraikinaren beste zatietan.

7. Retranqueos.

Se deberá ocupar la alineación de edificación en la planta baja de la fachada principal, si bien se admiten soluciones de retranqueo formando zaguanes. Serán libres en el resto del edificio.

8. Elementu irtenak.

Hegadak dituzten fatxada zatietan, hegalen sakonerak hegadak erregulatzeko ezarritako arau berberak beteko ditu, eta azken hauetatik 0,20 m gehienez irtengo dira.

Hegadarik ez dagoen zatietan, 1,00 m-ko sakonera izango du, gehienez ere.

Elementu bakar batek ere ezingo du eraikinarentzat finkatutako altuera gainditu.

8. Elementos salientes.

En los tramos de fachada en los que se dispongan vuelos, la profundidad de los aleros cumplirá las mismas reglas establecidas para la regulación de los vuelos, admitiéndose que sobresalgan de estos últimos un máximo de 0,20 m.

En los tramos en los que no se dispongan vuelos, su profundidad máxima será 1,00 m.

Ninguno de sus elementos podrá sobrepasar la altura de edificación establecida.

9. Sestra gainean eraiki gabeko erabilera pribatuko espazioak

Oro har, sestra gainean eraiki gabeko espazioetan, estali gabeko kirol edo aisialdirako instalazioak ezartzea baimentzen da; betiere, sestra gainean inolako lan elementurik jarri gabe -igerilekuak edo jokorako pistak-.

Ordenantza hauetako 81 artikuluan ezarritakoaren arabera, derrigorrezkoa izango da kasu guztietan beste finka batzuekiko bereizketetan eta bide publikoekiko mugan itxierak eraikitzea.

10. Udalak Xehetasun-Azterketa bat eskatu ahal izango du eraikinaren baldintza estetikoak eta arkitektonikoak adosteko.

9.Espacios de uso privado no edificados sobre rasante.

Se autoriza con carácter general la disposición, en los espacios no edificados sobre rasante, de instalaciones deportivas o recreativas descubiertas y carentes de elementos de obra sobre rasante como piscinas o pistas de juego.
Será obligatoria, en todo caso, la construcción de cierres, con arreglo a lo establecido en el artículo 81 de las presentes ordenanzas, en las separaciones con otras fincas, y en el límite con las vías públicas.

10. El Ayuntamiento podrá requerir un Estudio de Detalle para el acuerdo de las condiciones estéticas y arquitectónicas de la edificación.

IV.3 KAPITULUA. BIZITEGI ERABILERARAKO LURSAILEN ERABILERA BALDINTZAK (1B, 2B eta 3B).	CAPÍTULO IV.3 CONDICIONES DE USO APLICABLES A LAS PARCELAS DE USO RESIDENCIAL (R1, R2 y R3).
59 artikulua. Bizitegi erabilerako lursailen erabilera-erregimen orokorra.	*Artículo 59. Régimen general de uso de las parcelas de uso residencial.*
1. Bizitegi erabilerarako lursailak bizitegi erabileretara bideratuko dira batik bat, osatzen duten erabilera globaleko zonari esleitutako kalifikazio orokorreko araudiaren arabera.	1. Las parcelas de uso residencial se destinarán de forma predominante a los usos de vivienda de acuerdo con el régimen de calificación global asignado a la zona de uso global, de la que forman parte.
2. Gainera, honako artikulu honetako 3. idazpuruan bizitegi erabilerarako lursail mota bakoitzerako zehazten diren erabileren ezarpena baimentzen da, atal honetan ezarritako baldintzetan, eta bizitegi erabilera nagusiarekiko bateragarritasunaren mende.	2. Además, se autoriza, en las condiciones que se establecen en la presente sección, y subordinada a su compatibilidad efectiva con el uso residencial predominante, la implantación de los usos que para cada tipo de parcela de uso residencial se definen en el epígrafe 3 del presente artículo.
3. Alde Zaharreko 1B bizitegi erabilerarako lursailen erabilera erregimen orokorra. Erdigune historikoa. Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren (1992-09-08an behin betiko onartua) eta uztailaren 24ko 157/2012 Dekretuaren (Oñatiko (Gipuzkoa) Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondasun gisa deklaratzen duena) bidez berezko hirigintza-araudia du, eta babes-araubidea ezartzen du (2012-08-09ko EHAA, 155. zk.), 1. eranskinari (Mugaketa), 2. eranskinari (Deskribapena) eta III. eranskinari (Babes-araubidea) dagokienez. Biak dira aplikagarriak, berrikusi eta eguneratzen ez diren bitartean. Berrikuspen horrek bat etorri beharko du, besteak beste, Irisgarritasuna Sustatzeko Legearekin, Eraikuntzaren Kode Teknikoarekin eta ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuarekin. Babes-araubide horretan sartutako ondasunei aplikatu beharreko hirigintza-araubideak, Euskal Kultura Ondareari buruzko 14/2023 Legeak aldatutako 6/2019 Legearen 33. eta 46. artikuluetan araututako baimenak beharko dira. Era berean, kontuan hartu beharko da 853/21 Errege Dekretua, urriaren 5ekoa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilentzia Planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak arautzen dituena.	3. Régimen general de uso de las parcelas de uso residencial R1, -Casco Antiguo-. Centro histórico. Dispone de normativa urbanística propia a través del Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico, aprobado definitivamente el 08/09/1992 y el Decreto 157/2012, de 24 de julio, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Oñati (Gipuzkoa) y que establece su régimen de protección (BOPV nº 155, de 09/08/2012) en cuanto al Anexo 1: Delimitación, Anexo 2: Descripción y Anexo III: Régimen de Protección. Ambos son de aplicación en tanto no se proceda a su revisión y actualización. Dicha revisión deberá entre otros aspectos, coincidir la Ley para la Promoción de Accesibilidad, el Código Técnico de la Edificación y el Decreto 80/2022 de 28 de junio. El régimen urbanístico aplicable a los bienes incluidos en el citado Régimen de Protección requerirá las autorizaciones reguladas en los artículos 33 y 46 de la Ley 6/2019 modificada por la Ley 14/2023 de Patrimonio Cultural Vasco. Así mismo, deberá tenerse en cuenta el Real Decreto 853/2021. de 5 de octubre, por el que se regulan los programas de ayuda en materia de rehabilitación residencial y vivienda social del Plan de Recuperación, Transformación y Resilencia.

4. 2B bizitegi erabilerarako lursailen erabilera erregimen orokorra. R2, -Bizitegi intentsiboa

- Erabilera nagusia: Bizitegi

  • Goiko solairu guztietan.
  Eraikin finkatuen eta/edo zuzkidura-jarduketen teilatupeko solairuetan, etxebizitza independentea erabili ahal izango da beheko solairutik, betiere gutxieneko bizigarritasun-baldintzei buruzko Dekretua eta Irisgarritasunari buruzko Dekretua betetzen badira.
  Bestela, beheko solairuari lotutako etxebizitza erabili ahal izango da duplex moduan, baldin eta etxebizitza-programaren oinarrizko zatia, hau da, sukaldea, jangela, egongela, bainugela eta, gutxienez, logela nagusia azken solairuan egiten badira eta gainerako gela osagarriak teilatupeko solairuan banatzen badira.
  • Beheko solairuetan, aurreko paragrafoan aipatutako baldintza berberetan baimentzen da etxebizitza-erabilera, betiere araudi partikularrak edo plangintza xehatuak eta egungo ordenantzek eta horien egokitzapenek horretarako aukera ematen badute, erabilera-aldaketak zuzkidura-jarduketatzat hartuta.

- Baimendutako erabilerak:
  - Industria erabilerak:
    - 1. kategoriakoak, edozein solairuetan, sotoetan izan ezik.
    - 2. kategoriakoak, behe solairuan eta erdisotoetan bakarrik.
  - Hirugarren sektoreko erabilerak
    - Hotel erabilera:
      Hotel erabileraren kategorizazioari eta dagozkion irisgarritasun baldintzei buruz dagoen araudia bete beharko da.
    - Ostalaritza erabilera:
      Behe solairuetan, erdisotoetan eta oinartean baino ez.
    - Merkataritza erabilera:
      Erdisotoetan, behe solairu edo oinartean, hartzen duen lursailaren beraren muga bakarrarekin, eta sarbide independentearekin.
    - Bulego erabilera:
      Erdisotoetan, behe solairu edo oinartean, merkataritza erabileraren baldintza berberetan.

4. Régimen general de uso de las parcelas de uso residencial (R2, -Bloque intensivo).

- Uso predominante: Residencial
- En todas las plantas altas.
  En las plantas bajo cubierta de las edificaciones consolidadas y/o actuaciones de dotación, se permitirá el uso de vivienda independiente de la planta inferior, siempre y cuando se cumpla el Decreto de condiciones mínimas de Habitabilidad y el Decreto de Accesibilidad.
  En caso contrario,se permite el uso de vivienda vinculado a la planta inferior modo dúplex siempre y cuando la parte básica del programa de vivienda, esto es, cocina, comedor, estar, un baño y , como mínimo, el dormitorio principal se desarrollen en la planta última y el resto de dependencias complementarias se distribuyan en la planta bajocubierta.
- En las plantas bajas, se permite en las mismas condiciones citadas en el párrafo anterior el uso de vivienda, siempre y cuando la normativa particular o el planeamiento pormenorizado así como las ordenanzas actuales y sus posibles adaptaciones lo permitan entendiéndose en los casos de cambios de uso como actuaciones de dotación.

- Usos autorizados:
  - Industriales:
    - De 1ª Categoría en cualquiera de las plantas salvo en sótanos.
    - De 2ª Categoría únicamente en planta baja y semisótanos.
  - Terciarios:
    - Uso hotelero:
      De acuerdo a la normativa vigente referente a la categorización de los usos hoteleros y sus correspondientes condiciones de accesibilidad.
    - Uso hostelero:
      Únicamente en planta baja, semisótanos y entreplanta.
    - Uso de comercio:
      En semisótanos, planta baja y entreplanta con la única limitación de la propia parcela en la que se asienta, y acceso independiente.
    - Uso de oficinas:
      En semisótanos, planta baja y entreplanta, en las mismas condiciones que el uso de comercio.

Lehen solairuetan, etxebizitzekin partekatutako sarbidearekin eta hartzen duen lursailaren beraren muga bakarrarekin.
Goiko oinetan, "bulego profesional" motan, “etxebizitza” erabilerari asimilatutako erabilera gisa eta 90 m^2-ko gehienezko azalerarekin.

- Aisialdi erabilera:
  “Aisialdi elkarte" motan ostaritza erabileraren baldintza berberetan, sotoko solairuak barne.

- Gizarte kultur erabilera:
  Bulego erabileraren baldintza berberetan, goiko oinak izan ezik eta lursail osoa hartuz.
  Ostalaritzako erabilera lagungarriak ezartzen direnean, erdisotoetan, behe solairuetan edo oinartean ezarri beharko dira eta izaera orokorrez xedatutako babes beharkizunak bete beharko dituzte.
- Garajea:
  Sotoko, erdisotoko, behe solairuetan eta, kasua bada, hirigintza-araudi partikularrean onartutako solairuetan.
- Komunitate ekipamendua:
  Ekipamendu mota bakoitzaren kasuistikari erreparatuz arautuko da. Alabaina, aintzat hartuko dira ondorengo paragrafoetan zehaztutako salbuespenak:

  "Hilerri" kategoria eta "zibiko-administratiboa" baztertu egiten dira kasu guztietan, debekatutako industria erabilerei asimila dakizkiekeen motetan.
  “Irakaskuntza ekipamendu" eta "erlijio ekipamendu" erabilerak ezingo dira lehen solairutik gora ezarri, eraikuntza osoa okupatuz.
  Gizarte, kultura, aisialdi, osasun eta gainerako ekipamendu zibiko-administratiboak, bulego erabilerako baldintza berberetan, goiko oinetan izan ezik.
  Kirol ekipamenduak erdisotoetan, behe solairuetan eta oinartean, sarbide independentearekin.

- Debekatutako erabilerak:
  2B erabilera globaleko zonarako erregimen

En planta primera, con acceso común al de las viviendas y limitación de la superficie utilizada a la de la propia parcela.
En plantas altas en su modalidad de "despachos profesionales" como uso asimilado al de "vivienda" y limitación de superficie utilizada a 90 m^2.

- Uso recreativo:
  En su modalidad de "sociedades recreativas" en las mismas condiciones que el uso de hostelería con la inclusión de las plantas de sótano.
- Uso socio-cultural:
  En las mismas condiciones que el uso de oficinas, con la excepción de las plantas altas y ocupando la totalidad de la parcela.
  En caso de incorporar usos de hostelería auxiliares, éstos deberán instalarse en semisótanos, planta baja o entreplanta y cumplimentar los requisitos de protección establecidos con carácter general.
- Garaje:
  En sótanos, semisótanos, planta baja y, en su caso, en las plantas autorizadas en la normativa urbanística particular
- Equipamiento comunitario:
  Se regulará específicamente atendiendo a la casuística particular de cada tipo de equipamiento. No obstante se contemplarán las salvedades que se señalan en los párrafos siguientes:
  Se excluyen en todo caso los usos “funerario” y "cívico-administrativo" en sus modalidades asimilables a los usos industriales expresamente prohibidos.
  Los usos de "equipamiento docente", y "religioso" no podrán implantarse por encima de la planta primera, ocupando la totalidad de la edificación.
  Los equipamientos socio cultural-recreativo, sanitario asistencial y los demás “cívico-administrativos” en las mismas condiciones que los usos de oficinas, excepto en plantas altas.
  Los equipamientos deportivos en semisótano, planta baja y entreplanta con acceso independiente.

- Usos prohibidos:
  Será de aplicación el régimen general para la

orokorra aplikatuko da, 15 artikuluan xedatua.

5. 3B -Garapen Txikiko-bizitegi erabilerarako lursailen erabilera erregimen orokorra.

- Erabilera nagusia: Bizitegi
- Baimendutako erabilerak:
  - Hirugarren sektorekoak, mota guztietakoak, aisialdikoak izan ezik, etxebizitzarenari asimilatutako erabilera gisa, lursail bakoitzeko 100 m^2-ko azalera mugarekin.
  - Komunitate ekipamendua, lursail bat edo gehiago osorik okupatuz, "Hilerri" erabilera izan ezik.
  - Baratzea.
  - Garajea.
- Debekatutako erabilerak:
  - Industria erabilerak (2., 3. eta 4. kategoriak).
  - Hirugarren sektorekoak (baimendu gabeko kategorietan).
  - Landa erabilerak (guztiak “baratzea” izan ezik).
  - Komunitate ekipamendua (baimendu gabeko kategorietan).
  - Gas likidotuen biltegiak.

60 artikulua. Soto eta erdisotoen lokalen erabilera baldintzak.

1. Sotoko eta erdisotoko lokalak erabilera nagusiaren eta eraikuntzaren sestra gaineko solairuetan garatzen diren erabilera baimenduen erabilera erantsi eta lagungarrietara bideratuko dira, ahal izanez gero. Baita, hirigintza-araudi partikularretan hala ezartzen denean, zerbitzu publikoetako azpiegitura zentroak edo garajeak egiteko erabiliko dira ere.

2. Aurreko artikuluan ezarritakoari kalte egin gabe, ondorengo erabileretara bideratu ahal izango dira:

a). Etxebizitzarako erabilerak:
- Sestra gaineko koefizientea 0,7 baino altuagoa den erdisotetan bakarrik eta aireztapen naturala eta gurutzatua dutenean.

zona de uso global R2, establecido en el artículo 15.

5. Régimen general de uso de las parcelas de uso residencial R3 -Bajo desarrollo-.

- Uso predominante: Residencial
- Usos autorizados:
  - Terciarios en todas sus modalidades a excepción de los recreativos, como asimilados del de vivienda, con limitación de superficie a 100 m^2 por parcela.
  - Equipamiento Comunitario en ocupación total de una o varias parcelas, exceptuando, las variantes de "Cementerio".
  - Huerta.
  - Garaje.
- Usos prohibidos
  - Industriales (Categoría 2ª, 3ª y 4ª).
  - Terciarios (en las categorías no autorizadas).
  - Rurales (Todos menos el de "huerta").
  - Equipamiento comunitario (En las categorías no autorizadas).
  - Depósitos de gases licuados.

Artículo 60. Condiciones de uso de los locales de sótano y semisótano.

1. Los locales de sótano y semisótano se destinarán preferentemente a usos anejos y auxiliares del uso predominante y de los usos autorizados que se desarrollen en las plantas sobre rasante de la edificación de la que formen parte y, en los casos en que expresamente así se establezca en la normativa urbanística particular correspondiente, la implantación de centros de infraestructuras de servicios de carácter público o a usos de garaje.

2. Sin perjuicio de lo establecido en el artículo anterior, podrán destinarse a los siguientes usos:

a). Usos de vivienda:
- Unicamente en semisótanos con un coeficiente sobrerasante superior a 0,7 y que dispongan de ventilación natural cruzada.

b). Zuzkidurazko, Industria eta hirugarren sektoreko jendearentzako bulegoa edo ohiko presentzia dakarten erabilerak:
- Sestra gaineko koefizientea 0,4 baino altuagoa den erdisotetan bakarrik.
- Kanpoaldetik sarbide zuzena.

c). Bizitegi erabileren erabilera lagungarriak:
- Etxebizitzei erantsitako trastelekuak.
- Eraikinaren zerbitzu instalazioak, hala nola urandelak edo erregai biltegiak, berokuntza eta ur beroarentzako galdarak, ponpaketa instalazioak, igogailuen makineria eta antzekoak.
-

d). Beheko solairuko lokalak okupatzen dituzten erabileren erabilera lagungarriak:
- Merkataritza, material edo lanabes biltegiraketa.
- Lokal nagusiek bakarrik erabiltzeko zerbitzu instalazioak, hala nola kamara korazatuak, berokuntza instalazioak, garbigelak, aldagelak edo antzekoak.

e). Garajea eta erabilera lagungarri eta osagarriak, hala ezartzen denean.

f). Energia elektrikoa transformatzeko zentroak, hala ezartzen denean.

3. Garaje erabilera baimendu eta gutxieneko aparkaleku kopurua ezartzen den bizitegi erabilerarako lursailetan, gainerako erabilera baimenduak libre geratzen den soto edo erdisotoetako zatian bakarrik ezarri ahal izango dira, aipatu eskakizun hori betetzeko beharrezkoa den azalera erreserbatu ondoren.

4. Lokal mota horretako gutxieneko altuera librea 2,40 m-koa izango da. Bestalde, komun edo biltegi gisa erabiltzeko geletan, altuera librea 2,20 m-ra murriztea baimenduko da.

5. Sotoko eta 0,4 edo gutxiago duten sestra gaineko koefizientea duten erdisotoko gainerako lokaletan, debekatuta dago guztiz bulegoak edo pertsonak luzaroan egotea dakarten erabilerak ezartzea.

b). Usos industriales, terciarios y dotacionales que impliquen despacho al público o estancia continuada de personas:
- Unicamente en semisótanos con un coeficiente sobrerasante superior a 0,4.
- Acceso directo desde el exterior.

c). Usos auxiliares de los usos residenciales:
- Trasteros anejos a las viviendas.
- Instalaciones de servicios del edificio, como depósitos de agua o combustible, calderas de calefacción y agua caliente, instalaciones de bombeo, maquinaria de ascensores y otros equiparables.

d). Usos auxiliares de los que ocupen los locales de planta baja:
- Almacenamiento de mercancías, material o enseres utilizados en la actividad desarrollada.
- Instalaciones de servicios de utilización exclusiva de los locales principales, como cámaras acorazadas, instalaciones de calefacción, aseos, vestuarios y otras similares.

e). Garaje y usos auxiliares y complementarios cuando expresamente se establezca.

f). Centros de transformación de energía eléctrica cuando expresamente se establezca.

3. En los casos de parcelas residenciales en las que se autoriza la implantación de usos de garaje, y se establece una dotación de plazas mínimas, sólo podrán habilitarse los demás usos autorizados, en la parte de los locales de sótano o semisótano restante, una vez reservada la superficie necesaria para satisfacer dicha exigencia.

4.La altura libre mínima en este tipo de locales será 2,40 m. Asímismo, se autorizará que en las dependencias auxiliares destinadas a aseos o almacén, no susceptibles de otro uso, la altura libre se reduzca a 2,20 m..

5. En los locales de sótano y de semisótano con un coeficiente sobre rasante igual o inferior a 0,4, se prohíben expresamente las actividades de despacho al público, o que den lugar a la estancia continuada de personas.

61 artikulua. Behe solairu eta oinarteko lokalen erabilera baldintzak.

1. Beheko oinek eta oinarteek bizitegi erabilera izan dezakete, baldin eta Oñatiko Udalak xede horrekin prestatutako partikularren ordenantzan hala onartzen denean.

Goiko oinetako bizitegitarako erabilera lagungarriak ezarri ahal izango dira, baina goiko oin horiekin erregistro unitate zatiezina osatzen dutelarik. Hala ere, oinarritzat erabiltzen duten lurzoruari karga handia transmititzen dioten instalazioetako elementu tekniko jakin batzuk -biltegiak, igogailuen makinak, galdara gelak eta antzeko beste batzuk-, ahal izanez gero, lurzoruaren gainean ezarriko dira, eta egonez gero, soto edo erdisotoetan.

2. Gainera, bizitegi erabilerarako hainbat lursail motatarako baimendutako erabilera izan dezakete, kasu bakoitzean finkatzen diren mugapen eta baldintzekin.

3. Garaje erabilera eta beste erabilera osagarri batzuk izan ditzakete, betiere, kasuan bakoitzean zehaztutako muga eta baldintzekin.

62 artikulua. Goiko solairuen erabiltzeko baldintzak.

1. Goiko oinek, lehentasunez, lursailari esleitutako bizitegi erabilera nagusiak izango dituzte eta baita haien erabilera lagungarriak ere, zuzenean lurzoru gainean kokatu behar diren edo bizitegi erabilerarako lokalen erabiltzaileei eragozpenak sortu diezazkieketen instalazioetako elementu teknikoak izan ezik.

Era berean, etxebizitzaren erabilerari berariaz emandako industria erabilerak —1. kategoria— eta hirugarren sektoreko erabilerak ezartzeko baimena emango da.

2. Aurreko idazpuruan ezarritako lehentasunezko erabilera alde batera utzirik, erabilera nagusia etxebizitzatarakoa duten lursailetan, bai lehen

Artículo 61. Condiciones de uso de los locales de planta baja o entreplanta.

1. Las plantas bajas y entreplantas podrán dedicarse de forma directa a usos residenciales, siempre y cuando así se autorice en la ordenanza particular que se elabore por el Ayuntamiento de Oñati.

Podrán instalarse, en todo caso, usos auxiliares de los usos residenciales localizados en las plan-tas superiores, con los que constituirán una unidad registral indivisible. Sin embargo, determinados elementos técnicos de las instalaciones caracterizados por las fuertes cargas que transmiten al suelo en que se apoyan -depósitos, ma-quinarias de ascensores, cuartos de calderas y otros similares- se implantarán preferentemente sobre el terreno, en sótanos y semisótanos si éstos existen.

2. Podrán dedicarse además a los restantes usos autorizados en las distintas tipologías de parcelas de uso residencial, con las limitaciones y en las condiciones que en cada caso se establecen.

3. Podrán así mismo, destinarse al uso de garaje y sus usos auxiliares cuando expresamente se esta-blezca, con las limitaciones y en las condiciones que en cada caso se indiquen.

Artículo 62. Condiciones de uso de las plantas altas.

1. Las plantas altas se destinarán de forma prioritaria a los usos residenciales predominantes asignados a la parcela, así como a usos auxiliares de éstos, con excepción de los elementos técnicos de las instalaciones que deban situarse directamente sobre el terreno o que puedan causar molestias a los usuarios de los locales destinados a los usos residenciales.

Se autorizará asimismo, la implantación de los usos industriales -1ª categoría- y terciarios asimilados expresamente al uso de vivienda.

2. Sin perjuicio de la utilización prioritaria establecida en el epígrafe anterior, en las tipologías de parcelas en las que el uso

oinetan edo goiko oinetan hainbat erabilera ezarri ahal izango dira atal honetako 59 artikuluan kasu bakoitzerako ezarrita dauden baldintzen arabera, baldin eta lursailak okupazio esklusiboa badu.

predominante es el de vivienda, podrán implantarse en primeras plantas, o en la totalidad de las plantas altas, en el caso de ocupación exclusiva de la parcela, diversos usos de acuerdo con las condiciones que para cada caso se establecen en el artículo 59.

63 artikulua. Estalkipeak erabiltzeko baldintzak .

1. Ganbara eta estalkipeek, lehentasunez, eraikineko etxebizitzei erantsitako instalazio eta trastelekuetako elementu teknikoak ezartzeko erabilera izango dute.

2. Era berean, gainerako lokalek 64 artikuluan ezarritako altuera, argiztapen eta aireztapen baldintzak eta indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen isolamendu termikoko eskakizunak betetzen dituztenean, etxebizitza erabilerak edo antzekoak ezarri ahal izango dira, honako mugapen hauekin:

a) Lehendik eraikita dauden bizitegi erabilerarako eraikinetan:
   - Ezingo dira erregistroan bereizi lokal independente gisa eta, lehen hala ez badaude, eraikineko etxebizitzetako baten eranskin gisa erregistratu beharko dira.
   - Ez da baimenik emango ez zerbitzuko gelak -sukaldeak, komunak eta bainugelak- eraikitzeko eta ez etxebizitza independente gisa erabiltzeko aukera ematen duten banaketa bidezko soluzio orokorrak eraikitzeko.
   - Ganbara edo estalkipea atxikita dagoen etxebizitza azpiko oinean badago eta bi lokalen artean barruko eskaileraren bidezko lotura zuzena ezartzen bada, eskatzen diren bizigarritasun baldintzak betetzen dituzten gelak logela gisa erabiltzeko baimena eman ahal izango da. Kasu horretan, gutxienez bainugela bat jarri beharko da estalkipean, nahitaez. kasu horretan, teilatupean gutxienez komun bat jarri beharko da.
   - Aurreko paragrafoan eskatzen den lotura zuzena ezartzen ez bada edo bi lokalen artean lotura zuzenik ez dagoelako ezinezkoa gertatzen bada, komuna -komunontzia eta konketa- bakarrik egiteko

Artículo 63. Condiciones de uso de las plantas bajocubierta.

1. Los desvanes y bajo cubiertas se destinarán de forma prioritaria a la implantación de los elementos técnicos de las instalaciones y trasteros, anejos a las viviendas del edificio.

2. Asimismo, cuando los locales restantes reúnan las condiciones de altura, iluminación y ventilación establecidas en el artículo 64, así como los requisitos de aislamiento térmico exigidas por la legislación vigente, se podrán implantar usos de vivienda o asimilados, con las limitaciones siguientes:

a) En los edificios de uso residencial ya existentes:
   - En ningún caso se podrán segregar registralmente como locales independientes, debiendo inscribirse, si antes no lo estuvieran, como anejos de alguno de los locales de vivienda situados en el edificio.
   - No se autorizará la construcción de piezas de servicio -cocinas, aseos y baños- ni soluciones generales de distribución que permitan su utilización como vivienda independiente.
   - Si la vivienda a la que están adscritos se sitúa en la planta inmediatamente inferior y se establece relación directa entre ambos locales por una escalera interior, se podrá autorizar la utilización de las habitaciones que reúnan las condiciones de habitabilidad exigidas como dormitorios, debiéndose disponer, en tal caso, obligatoriamente, al menos un aseo en la bajocubierta.
   - Si no se establece la relación directa exigida en el párrafo anterior, o no resulta posible hacerlo por no existir relación espacial directa entre ambos locales, sólo se permitirá la construcción de retretes - inodoro con lavabo -

baimena emango da, eta lokala ezin izango da erabili ohiko logela gisa.

b) Eraikin berrietan eta birgaitze integraleko eraikinetan, etxebizitza independente gisa erabili ahal izango dira, baldin eta 64. eta 65. artikuluetan ezarritako bizigarritasun-baldintza orokorrak, programak eta etxebizitza-aurreikuspen orokorrak betetzen badira.

y no se autorizará la utilización de los locales como dormitorio habitual.

b) En los edificios de nueva construcción y rehabilitación integral, se permitirá su utilización como vivienda independiente, en los casos en que se cumplan las condiciones generales de habitabilidad, programa y dimensiones generales de vivienda, establecidos en los artículos 64 y 65.

IV.4 KAPITULUA. BIZITEGI ERABILERARAKO ERAIKINETAKO LOKALEN BIZIGARRITASUN BALDINTZA OROKORRAK (Espazioen neurriak, eskakizun funtzionalak eta oinarrizko instalazioen hornidura).	**CAPÍTULO IV.4 CONDICIONES GENERALES DE HABITABILIDAD DE LOS LOCALES EN LOS EDIFICIOS DE USO RESIDENCIAL (Dimensiones de los espacios, requisitos funcionales y dotación de instalaciones básicas).**
64 artikulua. Baldintza Orokorrak.	*Artículo 64. Condiciones generales.*
1. Plan Orokorraren babespean eraikitzen diren bizitegi erabilerarako eraikinek indarrean dagoen erregimen orokorrak eskatzen dituen baldintza orokorrak bete beharko dituzte. Zehazki, ekainaren 28ko 80/2022 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena.	1. Los edificios destinados a usos residenciales que se construyan al amparo del Plan General cumplimentarán los requisitos generales de habitabilidad exigidos por la normativa general vigente, y en concreto en el Decreto 80/2022, de 28 de junio, de regulación de las condiciones mínimas de habitabilidad y normas de diseño de las viviendas y alojamientos dotacionales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
2. Halaber, osagarri gisa aplikatuko dira Babes Ofizialeko Etxebizitzak arautzen dituzten arauetan edo horien ordez ematen direnetan dauden gaiari buruzko xedapenak.	2. Asimismo se aplicarán con carácter complementario las disposiciones sobre la materia contenidas en las normas reguladoras de las Viviendas de Protección Oficial o, en las que se dicten en sustitución de las mismas.
3. Ezin izango dira aplikatu 1B Alde Zaharreko lursailetan, atal honetan dauden eta lehengo eraikuntza motari eusteko lursail horietarako proposatutako lehentasunezko helburuarekiko kontrajarriak diren edo eraikuntzen garapena ezin gauzatuzkoa egiten duten espezifikazioak. Xede horrekin eta, aldez aurretik kontsulta eginda, Udal Zerbitzu Teknikoek hartu behar den soluzio aldizkakoa proposatuko dute.	3. No serán aplicables a las parcelas R1 -Casco Antiguo- aquellas especificaciones contenidas en la presente sección que resulten contradictorias con el objetivo prioritario propuesto para las mismas de preservación de la tipología edificatoria existente, o hagan inviable el desarrollo edificatorio. A tal efecto, y, previa consulta al respecto, los Servicios Técnicos Municipales propondrán la solución alternativa a adoptar.
4. Eraikinetara sartzeko atariek, erabiltzaile askoko kaleetara edo eremu publikoetara begiratuko dute, eraikinen atzekaldeko guneak sahiesten.	4. Los portales de acceso a los edificios darán a calles o espacios concurridos, evitando las zonas traseras de los edificios.
5. Oin berriko eraikinetan, zirkulaziorako espazio eta elementu komunak proiektatu eta gauzatuko dira, angelu hilak, atzeraemanguneak, izkinak, gune ilunak eta erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jar dezaketen gainerako espazioak saihesteko moduko konfigurazio espazialarekin. Atarira sartzeko kanpoko atetik igogailura edo eskaileraren lehen atalera doan ibilbide guztia, zuzenean edo ispiluen bidez, edozein noranzkotatik ikusi ahal izango da.	5. En edificios de nueva planta, los espacios y elementos comunes de circulación serán proyectados y ejecutados con una configuración espacial tal que eviten la existencia de ángulos muertos, retranqueos, esquinas, zonas oscuras y demás espacios que puedan poner en peligro la seguridad de los usuarios. Todo el recorrido desde la puerta exterior de acceso al portal hasta el ascensor o primer tramo de escalera deberá ser visible, directamente o mediante espejos,

desde cualquier sentido de circulación.

6. Eraikinetara sartzeko guneek eta garejeek argiztapenak pizte- eta itzaltze-kontrola, presentzia detektatzeko sistemaren bidez izango dute.

6. Las zonas de acceso a los edificios y los garajes, dispondrán de un control de encendido y apagado de la iluminación por sistema de detección de presencia.

65 artikulua. Etxebizitzei aplikatzeko baldintzak.

Artículo 65. Condiciones aplicables a las viviendas.

1. Etxebizitzaren azalera erabilgarria.

   Azalera erabilgarria barruti okupagarri ororen sabaiak okupatzen duena da, sabaiaren itxituren barnealdeak definitua, betiere 1,80 metrotik gorako altuera librea duena. Ez da azalera erabilgarritzat hartzen barruti okupagarrien eta kanpoaldearen artean dauden tarteko espazioei dagokiena.

   Edozein barrutitako azalera erabilgarriaren konpututik kanpo geratzen da barnealdeko itxitura finko edo mugikorrek, egitura-elementu bertikalek eta 100 cm^2-tik gorako sekzio horizontala duten kanalizazio edo hodiek oinplanoan okupatzen duten azalera, 1,80 m-tik beherako altuera librea duen lurzoru-azalerarekin batera.

   Solairu bat baino gehiago dauzkaten etxebizitzen kasuan, azalera erabilgarritzat kontabilizatuko da barnealdeko eskailerak hartzen duen azalera.

   Barruti berdinak eta eraikuntza beraren barnean zutabe bertikalean kokatuak direnean, egitura-elementu bertikalek eta 100 cm^2-tik gorako sekzio horizontala duten kanalizazio edo hodiek oinplanoan okupatzen duten azalera konputatzeko, zutabe- aren barreneko eta goreneko solairuetan dauden etxebizitzetako balioen batazbesteko aritmetikoa hartuko da.

1. Superficie útil de vivienda.

   Se entiende por superficie útil de vivienda la ocupada por el techo de todo recinto ocupable, definido por la cara interior de sus cerramientos y que disponga de una altura libre mayor de 1,80 metros. No tiene consideración de superficie útil la correspondiente a espacios intermedios entre los recintos ocupables y el exterior.

   Del cómputo de superficie útil de cualquier recinto queda excluida la superficie ocupada en planta por los cerramientos interiores, fijos o móviles, por los elementos estructurales verticales y por las canalizaciones o conductos con sección horizontal superior a 100 cm^2, así como la superficie de suelo en la que la altura libre sea inferior a 1,80 m

   En el caso de viviendas que se desarrollen en más de una planta, la superficie ocupada por la escalera interior se contabilizará como superficie útil.

   Cuando se trate de recintos iguales y dispuestos en columna vertical dentro de un mismo edificio, para el cómputo de las superficies ocupadas en planta por los elementos estructurales verticales y por las canalizaciones o conductos con sección horizontal superior a 100 cm^2, se tomará la media aritmética de los valores correspondientes a las viviendas situadas en plantas inferior y superior de la columna.

2. Programa eta etxebizitzaren neurri orokorrak.

   a) Etxebizitzaren gutxieneko neurria:
      Ezingo da eraiki 40 m^2 baino gutxiagoko azalera erabilgarria duen etxebizitzarik.
   b) Gutxieneko programa:
      Gutxieneko programak, ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren 1. eranskinean dauden

2. Programa y dimensiones generales de la vivienda.

   a) Dimensión mínima de vivienda:
      No podrán construirse viviendas cuya superficie útil sea inferior a 40 m^2.
   b) Programa mínimo:
      El programa mínimo, cumplirá en cualquier caso las disposiciones sobre la materia

gaiari buruzko xedapenak beteko ditu gutxienez.

3. Etxebizitzen batez besteko tamaina.
   a) Irizpide orokorrak:
   Eraikin bakoitzean, etxebizitzek, batez beste honako dimentsio hauek izango dituzte, gutxienez:
   - 1B eta 2B lursailak: 90 m^2(s)/etxeb.
   - 3B lursailak: Hirigintza-araudi partikularrean, "*bestelakoen*" atarian, ezarritakoaren arabera.

   b) Irizpide osagarriak:
   - Aurrez azaldutako irizpideen arabera, eraikuntza batean edo horren parte batean baimendutako etxebizitza kopuruaren kalkulu orokorretik ateratako zatiketek 48 m^2(s) baino gehiagoko eraikitako azalera edukiz gero, eta etxebizitza erabilerarako baldintzak betez gero (kalifikazio urbanistikoa, erabilerraztasuna, altuera, bizigarritasuna…), etxebizitza bat hartu ahalko dute.

   - Plan Orokorrean eta planeamendu xehatuan zehaztutako salbuespenekin, bere kasuan, aipatutako irizpideetara egokitzen ez diren eraikuntza finkatuetako etxebizitzak baliozkotu egingo dira, betiere, indarrean dagoen legediaren arabera gaitu badira edo ondoren legeztatuak izan badira.

   - Baliozkotze hori ez da ezarritako gutxieneko azalera betetzen ez duten eraikuntzetako etxebizitzetan aplikatuko. Hala, eraikin horiek ordezkatu eta birgaituz gero, gutxieneko azalera lortzeko neurriak hartu beharko dira.

   - Katalogatutako ondasunean sartutako eraikinetan edo eraikin parteetan, etxebizitza kopurua higiezina eta bere arkitektura ezaugarriak babesteko neurrien mende egongo da.

   - Etxebizitza kopurua areagotzea ingurua azpiegiturez eta hiri zerbitzuez hornitzeko abalaren eta horretarako egin beharreko obren baldintzapean egongo da.

contenidas en las normas reguladoras establecidas en el Anejo I del Decreto 80/2022 de 28 de junio.

3. Tamaño promedio de las viviendas
   a) Criterios generales:

   En cada edificio las viviendas tendrán, por término medio una dimensión no inferior a:

   - Parcelas R1 y R2: 90 m^2(t)/viv.
   - Parcelas R3: Según lo establecido en el apartado "*otras cuestiones*" de la normativa urbanística particular.

   b) Criterios complementarios:
   - Las fracciones resultantes del cálculo general del número de viviendas autorizable en una edificación o parte de la misma de conformidad con los criterios generales antes expuestos, que cuenten con una superficie construida superior a 48 m^2(t), y que cumplan las restantes condiciones para la autorización del uso de vivienda (calificación urbanística, accesibilidad, altura, habitabilidad...), podrá destinarse a una vivienda.
   - Con las salvedades establecidas en su caso en el Plan General y en el planeamiento pormenorizado, se convalidan las viviendas existentes en las edificaciones consolidadas que no se adecuen a los criterios anteriores, siempre que hubiesen sido habilitadas de conformidad con la legalidad vigente, o hubiesen sido legalizadas con posterioridad.
   - Esa convalidación no se extiende a las viviendas que cuenten con una superficie inferior a la mínima establecida. Así en caso de sustitución y rehabilitación de esas edificaciones, deberán de adoptarse las medidas adecuadas para la obtención de la superficie mínima indicada.
   - En las edificaciones o partes de las mismas integradas en el patrimonio catalogado, la determinación del número de viviendas se entenderá supeditado a la efectiva preservación del inmueble y sus cualidades arquitectónicas.
   - La habilitación de un número de viviendas superior al existente podrá condicionarse al aval y a la ejecución simultánea de las obras necesarias para dotar al entorno

c) Etxebizitzaren batez besteko gutxieneko neurria arautzeko eta horiek aplikatzeko baldintzak:

- Etxebizitzaren batez besteko neurriak arautzeko baldintzak, oro har, mota orotako eraikuntza esku-hartzeetan aplikatuko dira; betiere, lizentzia eremuaren osotasunean, nahiz eraikinaren parte bat izan, eraikin osoa izan ala eraikin multzo bat izan.
-
- Beren betetzea esku-hartzearen eremu baten osotasunean baimentzen da, bertan antolatutako eraikin edo/eta lursail guztiak kontuak hartuta.

- Batez besteko neurri horiek zenbatzeko, ez dira kontuan hartuko erabilera horretarako eraikitako solairuen azalera, sarbideko eremu komunak, eskailerak, igogailuak, eskailburuak, korridoreak eta antzekoak. Ez dira kontuan hartuko, ordea, erabilera osagarrietarako eremuak (trastelekuak, instalazio gela eta antzekoak) eta eraikinean etxebizitzekin okupatu gabeko solairuetako sarbideak (beheko solairuetako atariak eta antzekoak).

- Ondoren aipatzen diren baldintzak aplikatzetik ondorioztatzen denari kalterik egin gabe, lehendik dauden eta finkatuta dauden eraikinak ordezteko esku-hartzeetan lehendik dagoen etxebizitza-kopurua eraikitzea baimentzen da, nahiz eta batez besteko tamaina ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan ezarritakoa baino txikiagoa izan.

- Baimendutako beste erabilera batzuek dituzten etxebizitzen parte jakin batzuetan etxebizitza erabilera baimentzeko, aurrez aipatutako batez besteko neurria bete beharko da. Neurri horiek aplikatzeko, eraikinaren parte guztiak hartuko dira kontuan.
- Artikulu honetan jasotako aurreikuspenak aplikagarri zaizkien etxebizitzak ezingo dira berriro zatitu. Zatiketa bideragarria izan ezean, Jabetza Erregistroan jasoko da.

afectado de las necesarias infraestructuras y servicios urbanos.

c) Condiciones de regulación y aplicación del tamaño promedio mínimo de la vivienda:

- Con carácter general, las condiciones de regulación del tamaño promedio de vivienda se aplicarán en las intervenciones de edificación de todo tipo, al ámbito que es objeto de licencia, sea éste parte de un edificio, la totalidad del mismo o un conjunto de ellos.
- Se autoriza su cumplimentación global en el conjunto de la intervención, mediante la consideración conjunta, de la totalidad de las edificaciones y/o parcelas ordenadas en el mismo.
- A los efectos del cómputo de dicho tamaño promedio se considerará la superficie construida en las plantas que se destinan de forma predominante a ese uso, sin incluir los espacios comunes de acceso -escaleras, ascensores, descansillos y pasillos, y otros similares- pero no los espacios destinados a usos auxiliares –trasteros, cuartos de instalaciones, y otros similares-, y tampoco los de acceso situados en otras plantas del edificio no ocupadas por viviendas -portales en planta baja y otros-.
- Sin perjuicio de lo que resulte de la aplicación de las condiciones que se mencionan a continuación, se autoriza la construcción, en las intervenciones de sustitución de las edificaciones existentes y consolidadas, del número de viviendas preexistente, aun cuando el tamaño promedio sea inferior al establecido en el Decreto 80/2022 de 28 de junio.
- La autorización del uso de vivienda en determinadas partes de una edificación residencial destinadas con anterioridad a otros usos autorizados, se condicionará asimismo al cumplimiento del citado tamaño promedio de vivienda aplicado sobre la totalidad de las citadas partes de la edificación.
- Las viviendas que resulten de la aplicación de las previsiones expuestas en este artículo no podrán volver a ser subdivididas. La inviabilidad de dicha subdivisión será inscrita en todocaso en el Registro de la Propiedad.

66 artikulua. Beheko solairuetan baimendutako beste erabilera batzuetarako lokalei aplikatzeko baldintzak.

1. Gutxieneko altuera librea:
Lokal mota horretako gutxieneko altuera librea 2,80 m-koa izango da 40 m^2-ko azalera erabilgarria baino gutxiagoko espazioetan, 3,00 m-koa, 40 eta 80 m^2 arteko espazioetan eta 3,20 m-koa 80 m^2-ko azalera erabilgarria baino gehiagoko espazioetan. Bestalde, komun edo biltegi gisa erabiltzeko geletan, altuera librea 2,20 m-ra murriztea baimenduko da eta artikulu honetako 7. idazpuruan ezarritako baldintzak betetzen dituzten oinartekoetan 2,40 m-ra.

2. Sarbidea
Beheko oineko lokal guztiek sarbide zuzena izango dute eraikinaren kanpoaldetik.

3. Gutxieneko azalera.
Lokal horietako bakoitzaren azalera erabilgarria ez da izango 25 m^2 baino txikiagoa.

4. Publikoarentzako salmentarako gutxieneko azalera.
Merkataritzako lokal bakoitzeko publikoarentzako salmentarako guneak ezingo du izan 10 m^2 baino gutxiagoko azalera erabilgarria.

5. Aireztapena.
Artikulu honetan aipatzen diren eta pertsonak etengabe izango dituzten lokalek argiztapen eta aireztapen naturalak izango dituzte eta, behar izanez gero, aireztapen artifizialaren laguntza. Gutxienez, orduko lau aire bolumen berriztatzea ziurtatu behar da. Aireztapen artifiziala jarri nahi izanez gero, instalazioaren proiektu xehakatua aurkeztea eskatuko da. Proiektuak gaian aditua den profesionalak bermatutakoa izan beharko du eta udalaren oniritzia jaso beharko du

Aireztapen naturalerako, lokalaren edukieraren 1/8 baino txikiagoa izango ez den azaleraren heren batean gutxienez, hutsune irekigarriak izango dira.

Era horretako premiei aurre egiteko, oin berriko eraikinek bizitegi erabilerakoak ez diren beheko oineko edo oinarteko lokalen aireztapenerako eroanbideak izan beharko dituzte

Artículo 66. Condiciones aplicables a los locales destinados a otros usos autorizados en planta baja.

1. Altura libre mínima:
La altura libre mínima en este tipo de locales será 2,80 m. en los espacios de superficie útil inferior a 40 m^2, 3,00 m. en los de superficie inferior a 80 m^2 y mayor que 40 m^2 y 3,20 en los que superen los 80 m^2 de superficie útil. Asímismo, se autorizará que en las dependencias auxiliares destinadas a aseos o almacén, no susceptibles de otro uso, la altura libre se reduzca a 2,20 m., y, bajo entreplantas que cumplan las condiciones establecidas en el epígrafe 7 del presente artículo, 2,40 m.

2. Acceso.
Todos los locales de planta baja tendrán acceso directo desde el exterior del edificio.

3. Superficie mínima.
La superficie útil de cada uno de esos locales no será inferior a 25 m^2.

4. Superficie mínima de venta al público.

La zona destinada a venta al público en cada local comercial tendrá una superficie útil no inferior a 10 m^2.

5. Ventilación.
La parte de los locales comprendidos en el presente artículo, destinada a la estancia continuada de personas, tendrá iluminación y ventilación natural, ayudada por la artificial, si fuese preciso, de tal forma que se asegure una renovación del aire mínima de cuatro volúmenes por hora. Para esta última se exigirá, la presentación de un proyecto detallado de la instalación, avalado por un facultativo competente en la materia, que deberá ser aprobado por el Ayuntamiento.

La ventilación natural deberá disponer de huecos practicables al menos en una tercera parte, de superficie total no inferior a 1/8 de la cabida de la parte del local para cuyo servicio se establezcan.

En previsión de este tipo de necesidades, los edificios de nueva planta deberán disponer conducciones para ventilación de los locales destinados a usos no residenciales en planta

etxebizitzetakoetatik aparte. Eroanbideen gutxieneko neurriek honako hauek izan beharko dute: 900 cm^2 lokalen 200 m^2-ko.

Sukaldea, frijigailua, erretokia, plantxa, labea edo antzeko beste instalazioren bat duten ostalaritzako edo aisialdiko jardueren kasuan, keak eta gasak kanporatzeko eroanbide independentea eduki behar da nahitaez. Eroanbideak 200 cm2 eta 2,00 m2 arteko sekzioa izan behar du, teilatu hegala baino gorago iritsi behar du eta eraikinaren barruan joan behar du. Debekatuta dago fatxadetan edo patioetan instalatzea.

Trasteleku eta biltegi gisa erabiltzen diren lokal eta gelek argiztapen eta aireztapen artifizialak bakarrik izan ditzakete.

6. Komunen hornidura.

Lokal bakoitzak, sotoko edo erdisotoko lokalean kokatu ahal izango den komuna izango du, komunontzia eta konketaren gutxieneko hornidurarekin. Komunaren argiztapen eta aireztapen sistema etxebizitzetako bainugela eta komunetarako aurreikusitakoetako bat izango da.

Beheko oineko lokalak ehun metro karratuko azalera erabilgarria baino gehiago dituenean, bi komun bereizi izango ditu.

7. Oinarteak edo beheko oinarteetako goitegiak.

a) Beheko oineko lokalaren zati direnak eta eraikineko elementu komun batera edo beste finka batera irteera independenterik ez dutenak bakarrik baimentzen dira, eta aipatutako lokalarekin erregistro unitatea eratu behar dute nahitaez.
b) 4,80 m baino gutxiagoko altuera ez duten lokaletan eraiki ahal izango dira, Behealdeko gutxieneko altuera librea 2,40 m-koa izango da beheko aldean, eta 2,20 m-koa goialdean. Salbuespen gisa, tarteko oin edo goitegiaren erabilera esklusiboa negozioko artikuluak biltegiratzea balitz, gutxienez 4,55 m-ko altuera librea duten lokaletan ere onartuko litzateke. Kasu horietan ere, beheko aldearen gutxieneko altuera librea 2,40 m-koa izango litzateke.
c) Gehieneko azalerak ezin du izan euren beheko oineko lokalaren azaleraren % 50 baino handiagoa.

baja o entreplanta, independiente de las de las viviendas, con unas dimensiones mínimas de 900 cm^2 por cada 200 m^2 de locales.

En los casos de actividades de hostelería o recreativas que incorporen cocina, freidora, asador, plancha, horno u otra instalación similar, se dispondrá obligatoriamente un conducto independiente de evacuación de humos y gases de sección mínima 200 cm^2 hasta 2,00 m. por encima del alero, el cual deberá discurrir por el interior del edificio prohibiéndose expresamente su instalación en fachada o en patios.

Los locales y dependencias dedicados exclusivamente a trasteros y almacenes podrán tener sólo iluminación y ventilación artificiales.

6. Dotación de aseos.

Cada uno de los locales dispondrá de un cuarto de aseo, pudiendo situarse en locales de sótano o semisótano, con dotación mínima de inodoro y lavabo, cuyo sistema de iluminación y ventilación será alguno de los previstos para los baños y retretes de las viviendas siempre y cuando se cumpla con la ley de accesibilidad.

Cuando el local de planta baja tenga más de cien metros cuadrados de superficie útil, dispondrá de dos aseos separados.

7. Entreplantas o altillos en plantas bajas.

Se admite la colocación de elementos de seguridad como persianas, contraventanas, verjas, etc., siempre y cuando no sobresalgan de la alineación oficial de fachada y respeten las condiciones estéticas establecidas en el artículo 11 de la presente ordenanza.

8.artikulua. Keak, gasak eta lurrunak kanporatzeko baldintzak.

Ez da onartzen keak, gasak eta lurrunak fatxadetatik bide publikora edo auzo-patioetara zuzenean kanporatzea. Horiek kanporatzeko, eraikinaren estalkiraino iristen diren hodi bertikalak erabili behar dira nahitaez.

- Sukaldeko keen eta gasen kanporatzea.

Sukaldeek, 6. artikuluan eskatutako argiztapen eta aireztapen naturaleko baldintzak betetzeaz gain, elikagaiak egosteko edo prestatzeko plakan sortutako keak eta gasak kanporatzeko sistema bat izan beharko dute. Sistema hori erauzgailu mekaniko bat izango da, eta eraikinaren estalkiraino iritsiko den hodi bertikal bat izango du. Hori ezinezkoa bada, ikatz aktibozko iragazkiz hornitutako ke-irteerarik gabeko multzo iragazle bat eskatuko da.

- Galdaretako keen eta gasen kanporatzea.

Galdarak estankoak izango dira nahitaez.

- Airea girotzeko ekipoak.

Debekatzen da jartzea aire girotuko aparatuak, bide publikotik ikusten badira. Bide publikora ematen duten klimatizagailuen aire irteerako sareak jarri beharko dira 2,30 m-ko gutxieneko altura batera.

9.artikulua. Saneamendua.

Etxebizitza berrietan, hondakin-urak eraikinaren saneamendu-saretik hustuko dira. Hain zuzen ere, eraikineko erregistro-kutxatilaren aurretik dagoen puntu batean hustuko dira. Ezin izango dira, ezein kasutan, lurzati mugakide bateko saneamendu-sarera hustu.

Artículo 8. Condiciones de evacuación de humos, gases y vapores.

No se admite la libre evacuación de humos, gases y vapores a través de las fachadas a la vía pública o a patios de vecindad. Las evacuaciones se deberán realizar necesariamente a través de conductos verticales hasta la cubierta del edificio.

- Evacuación de humos y gases procedentes de la cocina.

Además de las condiciones de iluminación y ventilación natural exigidas en el artículo 6, las cocinas deberán contar con un sistema de evacuación de humos y gases procedentes de la placa de cocción o preparación de alimentos. Este sistema consistirá en extractor mecánico con conducto vertical hasta la cubierta del edificio. En caso de no ser posible, se exigirá un grupo filtrante sin salida de humos, dotado de filtro de carbón activo.

- Evacuación de humos y gases procedentes de las calderas.

Las calderas deberán ser necesariamente del tipo estanco.

- Equipos de climatización.

Se prohíbe la instalación de aparatos de aire acondicionado visibles desde la vía pública. Las rejillas de salida de aire de las climatizadoras que den a vía pública deberán situarse a una altura mínima de 2,30.

Artículo 9. Saneamiento

Las nuevas viviendas deberán resolver la evacuación de sus aguas residuales a través de la red de saneamiento propia del edificio en el que se encuentran, vertiendo en algún punto de esta red previo a la arqueta de registro del edificio. No podrán en ningún caso verter a una red de saneamiento de parcela colindante.

10.artikulua. Esekitokien aurreikuspena.

Etxebizitzek arropa esekitzeko eta lehortzeko irtenbide tekniko bideragarri bat izan beharko dute, eta irtenbide hori proiektuan justifikatu beharko da.

Bide publikora ematen duten fatxadetan, ez da onartuko arropa zuzenean esekitzea; beharrezkoa izango da kanpoko ikuspegitik babestuta egongo den esekitokirako gune bat aurreikustea. Atondo pribatuko gune bat (terraza edo lorategia) izanez gero, fatxada-lerrokaduratik metro bat irtengo den eta estetikoki eraikinaren fatxadaren diseinu orokorrean integratuta egongo den esekitoki bat eraikitzea onartuko da.

Gune horietan ezin izango da garbigailurik edo lehorgailurik jarri.

Lurzati-patiora edo auzo-patiora ematen duten fatxadetan. Zuzenean esekitzea onartuko da, betiere erkidegoko arauetan ere onartuta badago. Halaber, gune horietan garbigailuak edo lehorgailuak jartzea onartuko da, betiere erkidegoko arauetan ere onartuta badaude.

Arropa bide publikora, lurzati-patiora edo auzo-patiora ematen duten fatxadetan esekitzeko soluzio bideragarririk ez dagoenean onartuko da barneko gune batean (sukaldea, bainugela edo lokal esklusibo bat) lehorgailu elektriko bat jartzeko. Irtenbide hori proiektua idatzi duen teknikariak justifikatu beharko du, eta lizentziaren xede den proiektuaren aurrekontuan lehorgailua sartu beharko da.

11.artikulua. Tratamendu estetikoa.

Etxebizitza bihurtutako lokalen fatxada berriek eraikinaren konfigurazio orokorrarekin harmonian eta fatxaden konposizio orokorrean integratuta egon beharko dute, distortsio estetikorik barik materialetan, koloretan eta abar, eraikinaren fatxada osoaren konposizio-unitateari lehentasuna emanez.

Artículo 10. Previsión de tendederos

Las viviendas deberán de contar de una solución técnica viable para el tendido y secado de la ropa, que deberá justificarse en el proyecto.

En fachadas que den hacia la vía pública no se admite el tendido directo, siendo necesario prever un espacio de tendedero protegido contra las vistas desde el exterior. En caso de contar con un espacio de antepuerta privada (terraza o jardín) se admite la construcción de un tendedero que sobresalga un metro de la alineación de fachada, integrado estéticamente en el diseño general de la fachada del edificio.

No se admite la disposición de lavadoras o secadoras en estos espacios.

En fachadas a patio de parcela o vecindad. Se admite el tendido directo, siempre que este sea admitido por las normas de la comunidad. Se admite la disposición de lavadoras o secadoras en estos espacios siempre que también se admita por las normas de la comunidad.

Únicamente en caso de no existir solución viable de tendido de la ropa ni hacia la vía pública ni hacia patio de parcela o vecindad, se admite la previsión de un espacio interior, ya sea en cocina, baño o local exclusivo, para la ubicación de una secadora eléctrica. Esta solución deberá estar justificada por el técnico redactor del proyecto, y en el presupuesto del proyecto objeto de licencia se deberá incluir la máquina secadora

Artículo 11. Tratamiento estético

Las nuevas fachadas de los locales transformados en vivienda deberán armonizar con la configuración general del edificio e integrarse en la composición general de sus fachadas sin distorsiones estéticas en cuanto a materiales, colores etc. , primando el concepto de unidad compositiva del conjunto de la fachada del edificio.

Eraikin beraren barruan etxebizitza bihurtzeko moduko hainbat lokal badaude, konposizio-soluzio bakarra ezarri beharko da denentzat. Horretarako, etxebizitza bihurtutako lehen lokala hartuko da erreferentziatzat.

Aurkeztu beharreko proiektuak fatxada berrien konposizioari buruzko azterlana jaso beharko du, udal-teknikariek balioets dezaten.

En el caso de varios locales transformables en vivienda dentro del mismo edificio, se deberá adoptar una única solución compositiva para todos, tomando como referencia el primer local transformado en vivienda.

El proyecto que se aporte deberá incorporar el estudio compositivo de las nuevas fachadas para su valoración por los técnicos municipales

12.artikulua. Sarbide eta elementu komunak.

Antolatutako etxebizitza berrietarako sarbidea etxebizitza horiek kokatuta dauden eraikinaren barne-zirkulazioko elementu komunetatik (ataria) egingo da, edo, hala badagokio, lurzatian bertan eraiki gabe dagoen espaziotik, hau da, ezingo dute sarbide zuzenik izan bide publikotik.

Artículo 12. Accesos y elementos comunes.

El acceso a las nuevas viviendas ordenadas deberá realizarse desde los elementos comunes de circulación interior del edificio en el que se ubican (portal), o en su caso, desde el espacio no edificado de la propia parcela, es decir, no podrán tener acceso directo desde la vía pública.

.

.

13. artikulua. Irisgarritasun-baldintzak.

Irisgarritasuna sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren aplikazioaren ondorioetarako, lokalak etxebizitza bihurtzeko beharrezkoak diren obrak familia bakarreko etxebizitzen berrikuntzatzat hartuko dira.

Hala ere, oro har, Eusko Jaurlaritzaren Dekretuan ezarritako baldintzetan bermatu beharko da etxebizitzarako sarbidea.

Artículo 13. Condiciones de accesibilidad.

A los efectos de aplicación del Decreto 68/2000 de 11 de abril del Gobierno Vasco para la promoción de la accesibilidad, las obras precisas para transformar locales en viviendas se considerarán como reforma de vivienda unifamiliar.

No obstante, deberá garantizarse el acceso a la vivienda en las condiciones establecidas en el Decreto del Gobierno Vasco

14.artikulua. Araudi teknikoa.

Aztergai dugun kasuari aplikatzeko moduko alderdietan, indarrean dagoen araudi teknikoaren betetzea justifikatu beharko da (EKTa, bereziki).

Artículo 14. Normativa técnica

Deberá justificarse el cumplimiento de la normativa técnica vigente en aquellos aspectos que sean de aplicación al caso, en especial el CTE

15.artikulua. Solairuarteak.

Solairuarteak eraiki ahal izango dira, baldin eta ateratzen diren altuera libreek 80/2022 Dekretuaren eranskineko I.B.4.3 puntuan adierazitakoa betetzen badute.

Solairuarteak kokatuta dagoen etxebizitzari lotuta egon beharko du nahitaez, eta garatu ahal izango da lokalaren azalera erabilgarriaren %60an; eta iritsi daiteke fatxadaraino, behar bezala konponduz baoen konposizioa oro har.

Artículo 15. Altillos

Se permitirá la construcción de altillos siempre que las alturas libres resultantes cumplan con lo señalado en el punto I.B.4.3 incluido en el anexo del Decreto 80/2022.

El altillo deberá estar necesariamente vinculado a la vivienda en la que se ubica y podrá desarrollarse en el 60 % de la superficie útil del local, pudiendo llegar hasta fachada, resolviendo adecuadamente la composición de los huecos en conjunto.

16.artikulua. Toldoak

Orokortasunez ez da onartuko toldoak jartzea beheko solairuko lokaletan, baldintza horretatik salbuetsiko dira babes zerrenda bat duten kasuak (*berdegunea, terraza*…), 2m zabalerakoa lokalaren artean eta erabilera publikoko kanpoko ibilbideen eta oinezkoen pasabideen artean, eta abar. Zerrenda hori titulartasun pribatukoa izan daiteke (komunitatekoa edo ez), edo izan daiteke lorategi eremu publikoa.

17.artikulua. Beste baldintza eta betekizun batzuk.

- ***Isolamendu akustikoko baldintzak.***

Etxebizitza berriaren soinu maila egokituko zaio indarrean dagoen zarataren gaineko araudiari, eskaera egiten den unean elkarren ondoan dauden instalazioen ezaugarrien arabera, bai zirkulaziotik datorren kanpoko zarataren arabera. Beraz, egokitze proiektuan teknikoki bermatu eta justifikatu beharko da intsonorizazio egokia.

- ***Eraikinen lotizazio-baldintzak.***

Lokal bat edo batzuk eraikin mugakideetakoak diren kasuetan, erabilera aldatzeko ezin izango du aldatu bakoitzaren lotizazioa (atariak, eraikinak). Ildo berean, instalazio eta sare guztiek (saneamendu-sareak, ur-hornikuntzako sareak, gas-sareak, elektrizitate-sareak eta abar), baita keak kanporatzekoak ere, dauden eraikuntza-unitatekoak izan beharko dute, eta ezin izango dituzte beste erkidego batekoak baliatu, ezta zeharkatu ere.

- ***Jabetza pribaturako eskubidearen babesa eta zortasunak***.

Udalak ordenantza honen aplikazioari jarraiki ematen dituen baimenek ez dituzte kaltetuko eraginpean hartutako finketan dauden eskubide edo zortasun pribatuak, hala nola elementu komunetarako (patioetarako edo instalazio-geletarako) sarbidea, instalazio-igarobideak edo beste edozein.

Artículo 16. Toldos

Con carácter general no se permitirá la instalación de toldos en los locales de planta baja, se excepcionarán de esta condición los casos en los que exista una franja de protección (*zona verde, terraza…*) de 2 m de anchura entre el local y los itinerarios y pasos peatonales exteriores de uso público, etc. Dicha franja podrá ser de titularidad privada (comunitaria o no) o zona pública ajardinada.

Artículo 17. Otras condiciones y requisitos.

- ***Condiciones de aislamiento acústico.***

El nivel de insonorización de la nueva vivienda se ajustará a lo establecido en la normativa vigente en materia de ruidos, en función de las características de las instalaciones contiguas existentes en el momento de la solicitud, así como del ruido exterior procedente del tráfico, por lo que en el proyecto de adecuación deberá garantizarse y justificarse técnicamente la insonorización adecuada.

- ***Condiciones de lotización de los edificios.***

En los casos en que uno o varios locales pertenezcan a diversos edificios colindantes, la actuación de cambio de uso no podrá modificar la lotización de cada uno de ellos (portales/edificios). En idéntico sentido, todas las instalaciones y redes (saneamiento, abastecimiento de agua, gas, electricidad), incluso evacuación de humos, deberán de pertenecer a la unidad edificatoria en donde se encuentran, no pudiendo servirse de los de otra comunidad ni tan siquiera atravesarla.

- ***Servidumbres y protección del derecho a la propiedad privada.***

Las autorizaciones que pudiera conceder el Ayuntamiento en virtud de la aplicación de la presente ordenanza, no presuponen menoscabo a derechos o servidumbre privados que pudieran existir en las fincas afectadas, tales como acceso a elementos comunes (patios o cuartos de instalaciones), pasos de instalaciones, o cualquier otro.

3.KAPITULUA. ETXEBIZITZEN ERREGIMEN JURIDIKOA	CAPÍTULO 3. REGIMEN JURIDICO DE LAS VIVIENDAS
18.artikulua. Udal-etxebizitza tasatu gisa kalifikazioa.	***Artículo 18. Calificación como vivienda tasada municipal. .***
Bihurketaren emaitzazko etxebizitza babes publikoko etxebizitzatzat (*Udal Etxebizitza Tasatutzat*) hartuko da etengabe, eta Ordenantza horretan ezarritako erregimenari lotuta egongo da, eta ezingo zaio etorkizunean kalifikazio horri uko egin.	La vivienda resultante de la conversión tendrá la consideración de vivienda de protección pública (*Vivienda Tasada Municipal*) de forma permanente y estará sujeta al régimen establecido en dicha Ordenanza, sin que pueda renunciarse a tal calificación en el futuro
19.artikulua. Etxebizitzaren erabilera-erregimena.	***Artículo 19. Régimen de uso de la vivienda***
Etxebizitza jabetza-erregimenean erabiliko da, eta erosleak edo maizterrak ohiko eta bizi- leku iraunkor gisa erabili beharko du. Esanbidez debekatuta egongo da bigarren etxebizitza gisa erabiltzeko edo beste edo- zein erabilera emateko aukera.	La vivienda se utilizará en régimen de propiedad y la persona compradora estará obligada a utilizarla como domicilio habitual y permanente, quedando expresamente prohibida que se pueda destinar a segunda vivienda o a cualquier otro uso
20.artikulua. Lokala etxebizitza bihurtzeko sustatzaileak.	***Artículo 20. Promotores de la conversión en vivienda.***
1.- Lokalaren jabe den edozein pertsona fisikok edo juridikok, publikok edo pribatuk sustatu ahal izango du lokala etxe- bizitza bihurtzeko aukera.	1.- Podrá promover la conversión del local en vivienda cualquier persona física o jurídica, pública o privada, que sea propietaria del local.
2.- Bihurketa sustatzen duen pertsonak lokala Ordenantza honetan ezarritako baldintzetara egokitzeko obren egikaritzea bere gain hartu eta ordainduko du, eta Eraikuntza Antolatzeko Legean eta gainerako araudi aplikagarrietan onartutako erantzukizuna izango du.	2.- La persona promotora de la conversión asumirá y costeará la ejecución de las obras que permitan adecuar el local a las condiciones establecidas en la presente Ordenanza y tendrá la responsabilidad reconocida a aquélla en la Ley de Ordenación de la Edificación y demás normativas de aplicación
21. artikulua. Etxebizitzen hartzaileen baldintzak.	***Artículo 21. Requisitos de las personas destinatarias de las viviendas.***
Etxebizitza eskuratzeko, pertsonak indarrean dagoen Udal etxebizitza Tasatuaren Ordenantza Orokor Arautzailean ezarritako baldintzak bete beharko ditu.	Para poder optar a la adquisición de la vivienda la persona deberá reunir los requisitos establecidos en la Ordenanza municipal Reguladora de la Vivienda Tasada municipal.

22.artikulua. Gehieneko prezioak

Etxebizitzaren metro koadro erabilgarriaren gehieneko salmenta-prezioa, lehen, bigarren eta ondorengo eskualdatzeetan, Udal Etxebizitza Tasatuak Arautzen dituen Udal Ordenantzan erregimen bereziko etxebizitzetarako ezarritakoa izango da.

Artículo 22. Precios máximos

El precio máximo de venta del metro cuadrado útil de la vivienda en primeras, segundas y posteriores transmisiones, será el establecido en la Ordenanza Municipal Reguladora de la Vivienda Tasada Municipal, para las viviendas de Régimen Especial.

23.artikulua. Gehieneko eta gutxieneko diru-sarrerak.

Ordenantza honetan araututako etxebizitzen esleipendun izateko, ezinbestekoa izango da, jabe eskualdatzaileak Udalari salmenta jakinarazten dion unean, Udal Etxebizitza Tasatuak Arautzeko Udal Ordenantzaren 6. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea

Artículo 23. Ingresos máximos y mínimos.

Para ser adjudicatario de las viviendas reguladas por la presente Ordenanza será imprescindible, en el momento de la notificación de venta al Ayuntamiento por parte del propietario transmitente, dar cumplimiento a los requisitos establecidos en el artículo 6 de la Ordenanza Municipal Reguladora de la Vivienda Tasada Municipal.

24. artikulua. Hirigintza kargak.

Merkataritza-lokal bat etxebizitza bihurtzea zuzkidura-jarduketatzat hartzen da, eta, beraz, hirigintza kargak ordaindu beharko dira, kasuan kasu planteatutako zuzkidura jarduketa guztiei eta bakoitzari dagozkienak.

Artículo 24.- Cargas urbanísticas

La conversión de un local comercial en vivienda se considera una actuación de dotación y por lo tanto, deberán abonarse las cargas urbanísticas relativas a todas y cada una de las actuaciones de dotación que se planteen para la transformación en cada caso.

4.KAPITULUA. ERABILERA ALDATZEKO LIZENTZIA LORTZEA. ETXEBIZITZA TASATUAREN KALIFIKAZIOAA	CAPÍTULO 4. OBTENCIÓN DE LA LICENCIA DE CAMBIO DE USO. CALIFICACIÓN DE VIVIENDA TASADA
25.artikulua. Erabilera-aldaketarako lizentziak lortzeko prozedura.	***Artículo 25. Procedimiento para la obtención de licencias de cambio de uso***
Lokalaren jabearen eskaeraren bidez emango zaio hasiera prozedurari. Eskaera horrekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:	El procedimiento se iniciará mediante la solicitud del propietario del local, el cual deberá de presentar la siguiente documentación:
1.- Jabetza Erregistroak emandako oharra.	1.- Nota simple emitida por el Registro de la Propiedad.
2.- Erabilera berriaren justifikazioko memoria xehatua, lokalaren azalera eta ordenantza honetan eskatutako baldintzak betetzen direla adierazita.	2.- Memoria justificativa y detallada del nuevo uso con indicación de la superficie del local, y el cumplimiento de las condiciones exigidas en la presente ordenanza.
3.- 1:500 eskalako kokapen-planoa. Bertan, finkaren kokapena adierazi beharko da argi eta garbi, finka bera kokatuta dagoen etxadiarekin edo blokearekin muga egiten duten bide publikoak eta partikularrak erreferentziatzat hartuta. Plano horretan adieraziko dira etxadiaren orientazioa, lerrokadura eta sestra ofizialak eta erdiko patioaren perimetroa, halakorik badago, eta adieraziko da dagoen eraikina lerrokadura eta sestra horietara egokitzen den ala ez.	3.- Plano de emplazamiento, a escala 1:500, en el que se exprese claramente la situación de la finca con referencia a las vías públicas y particulares que limiten la totalidad de la manzana o bloque en que esté situada. En este plano se indicará la orientación, las alineaciones y rasantes oficiales y el perímetro del patio central de la manzana, caso de que lo haya, y se señalará si el edificio existente se ajusta o no a las referidas alineaciones y rasantes.
4.- 1/100 eskalako oinen eta fatxaden planoa, horiek erabat ulertzeko beharrezkoak diren sekzioekin.	4.- Plano de planta y fachadas, a escala 1/100, con las secciones necesarias para comprobar su idoneidad
Udal-zerbitzu teknikoek, txosten tekniko bidez, lokala bertan etxebizitza bat antolatzeko gai den balioetsiko dute, Ordenantza honetan ezarritako irizpideei jarraiki. Txosten hori bi hilabeteko epean egin beharko da nahitaez, eskaera aurkezten denetik aurrera kontatzen hasita.	Los Servicios Técnicos Municipales, mediante informe técnico, valorarán la aptitud del local para albergar en él una vivienda, de conformidad con los criterios establecidos en esta ordenanza Este informe deberá emitirse preceptivamente en el plazo de dos meses a contar desde la presentación de la solicitud.
Lokalak eskatzen diren baldintzak betetzen baditu eta aldeko txosten teknikoa baldin badu, udalaren organo eskudunak erabilera-aldaketaren lizentzia ematea ebatziko du, eta akordio horretan jardunari dagozkion hirigintza-kargen zenbatekoa adieraziko du.	Si el local reúne los requisitos exigidos y cuenta con informe técnico favorable, el órgano competente municipal resolverá la concesión de la licencia de cambio de uso y expresará en el mismo acuerdo el importe al que asciendan las cargas urbanísticas correspondientes a la actuación.

Jabeak eta alkateak izenpetu beharreko Hitzarmen bidez gauzatuko da erabilera-aldaketa. Hitzarmen horretan, hirigintza-kargak kuantifikatuko dira eta ordaintzeko modua. Hitzarmena hilabeteko gehieneko epean sinatu beharko da, erabilera aldatzeko lizentzia ematen denetik aurrera kontatzen hasita.

El cambio de uso se materializará mediante un Convenio que suscribirán el propietario y el Alcalde-Presidente, en el que se cuantificarán las cargas urbanísticas y su forma de pago. La firma del Convenio deberá realizarse en el plazo máximo de un mes desde la concesión de la licencia de cambio de uso.

Erabilera aldatzeko eskubidea Hitzarmena sinatzen denean lortuko da, eta hirigintza-kargak ordaindu ondoren; bi ekintza horiek aldi berean gauzatu beharko dira

El derecho para el cambio de uso se adquirirá en el momento de la suscripción del Convenio y una vez realizado el abono de las cargas urbanísticas que deberá ser simultáneo.

Aurreko guztia hirugarrenaren eskubideei eta jarduketak eska ditzakeen jabetza horizontaleko tituluaren aldaketei kalterik egin gabe egingo da

Todo lo anterior se efectuará sin perjuicio de los derechos de tercero y de las modificaciones del título de propiedad horizontal que en su caso pudiera exigir la actuación.

Erabilera aldatzeko udal-lizentziak ez ditu behartzen higiezinaren gainerako jabeak, eta ez die eragiten partikularren arteko harremanei; adostasunik ezean, justizia-auzitegi arruntetan ebatziko dira haien arteko gatazkak.

La licencia municipal de cambio de uso no obliga al resto de propietarios del inmueble ni afecta a las relaciones entre particulares, cuyos conflictos, de no mediar acuerdo, se resolverán ante los Tribunales ordinarios de justicia.

26.artikulua. Obra-lizentzia.

Artículo 26. Licencia de obras.

Etxebizitza berria egokitzeko obretarako lizentzia lortze aldera, interesdunak proiektu tekniko bat aurkeztu beharko du, eskaerarekin batera, bi hilabeteko epean, Hitzarmena sinatzen denetik aurrera kontatzen hasita. Proiektu hori teknikari aditu batek izenpetuko du, eta dagokion Elkargo Profesionalak emango dio oniritzia.

Para la obtención de la licencia de obras de acondicionamiento de la nueva vivienda el interesado deberá presentar en el plazo máximo de dos meses desde la firma del Convenio, junto con la solicitud, un Proyecto Técnico, suscrito por técnico competente y visado por el Colegio Profesional correspondiente.

Obra-lizentziaren titularrak lizentzia transmititzean, Udalari jakinaraziko dio alderdi hori, eta Udalak dagokion erabakia hartuko du. Edonola ere, horrekin batera erabilera aldatzeko lizentziarekin eta Hitzarmenarekin eskuratutako eskubideak transmititzen direla ulertuko da. Jakinarazpen horrek transmititzaileak eta eskuratzaileak izenpetuta egon beharko du.

El titular de la licencia de obras podrá transmitirla notificando este extremo al Ayuntamiento el cual adoptará el acuerdo correspondiente, entendiéndose que con ella se transmiten conjuntamente los derechos adquiridos por la licencia de cambio de uso y por el Convenio. Dicha notificación deberá estar suscrita, conjuntamente, por el transmisor y por el adquiriente.

Era berean, sustatzaileak egiaztatu beharko du etxebizitza besterendu nahi diola udal-etxebizitza tasatua arautzen duen udal-ordenantzan adierazitako baldintzak betetzen dituenari.

Asimismo, la persona promotora acreditará su voluntad de enajenar la vivienda a quien cumpla las condiciones señaladas en la Ordenanza municipal reguladora de la vivienda tasada municipal.

Aurretik Udal Etxebizitza Tasatuaren Behin Behineko Kalifikazioa lortu ez bada, ez da obra-lizentzia emango.

No se concederá la licencia de obras, si previamente no se ha obtenido la Calificación Provisional de Vivienda Tasada Municipal.

Obra-lizentzia ematen denetik urtebeteko epean, lizentzia horrek amaituta egon beharko du, lehen okupazioko lizentzia eskuratuta, emandako behin betiko kalifikazioarekin eta etxebizitza okupatua egon beharko da. Azken alderdi hori egiaztatzeko, etxebizitzan gutxienez biztanle bat erroldatuta egon beharko da.

En el plazo de un año a contar desde la concesión de la licencia de obras, ésta deberá encontrarse finalizada, la licencia de primera ocupación obtenida, la calificación definitiva otorgada y la vivienda habitada. Este último extremo se acreditará con el empadronamiento de al menos un habitante en la vivienda.

27.artikulua. Behin-behineko eta behin betiko kalifikazioa.

Artículo 27. Calificación provisional y definitiva

Etxebizitza tasatuaren kalifikazioa iraunkorra izango da. Kalifikazio iraunkorra izateak esan nahi du gehieneko salmenta-prezio bati lotuta egongo dela eskualdatze guztietan, eta udal-administrazioak edo Eusko Jaurlaritzak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak baliatzeko ahalmena izango duela.

La calificación como vivienda tasada tendrá carácter permanente. La calificación permanente implica su sujeción a un precio máximo de venta en todas sus transmisiones y la facultad del ejercicio de los derechos de tanteo y retracto por la Administración municipal o del Gobierno Vasco

Udal Etxebizitza Tasatuaren kalifikazioa Tokiko Gobernu Batzordearen ebazpen bidez ezarriko da, sustatzaileak eskatuta.

La Calificación de Vivienda Tasada Municipal se establecerá mediante resolución de la Junta de Gobierno Local a petición del promotor.

1.- Behin-behineko kalifikazioa.

1.- Calificación provisional.

Lokalak etxebizitza bihurtzeko jardunen ondoriozko etxebizitzen behin-behineko kalifikazioa eta obra-lizentzia aldi berean emango dira; horrela, beraz, lizentzia ez da emango kalifikazioa eskatzen ez bada edo bidezkoa ez bada.

La Calificación Provisional de las viviendas resultantes de actuaciones de transformación de locales en viviendas habrá que simultanearse con la licencia de las obras correspondientes, y esta última no se otorgará de no solicitarse o no resultar procedente la calificación.

2.- Behin betiko kalifikazioa.

2.- Calificación definitiva.

Obrak lizentziari jarraiki egikaritu ondoren lehen erabilerako baimena emateak esan nahi du higiezin horri etxebizitza babestuaren (Udal Etxebizitza Tasatuaren) behin betiko kalifikazio iraunkorra ematen zaiola. Era horretan, eskualdatze- eskritura formalizatu ahal izango da, eta erosleak etxebizitza okupatu ahal izango du.

La concesión del permiso de primera utilización tras la ejecución de las obras conforme a la licencia, conllevará la calificación definitiva y permanente de dicho inmueble como vivienda protegida (Vivienda Tasada Municipal), lo que permitirá la formalización de la escritura de transmisión y el comprador podrá ocupar la vivienda.

28.artikulua. Kalifikazioaren edukia.

Etxebizitzaren behin-behineko eta behin betiko kalifikazioen inguruko ebazpenek honako alderdi hauek jasoko dituzte:

a) Sustatzailearen identifikazioa (izena edo izen soziala, zerga-identifikazioa eta helbidea).
b) Sustapeneko etxebizitzen azalera erabilgarria;
c) Etxebizitzaren erabilera-erregimena: Salmenta.
d) Salmenta-prezioa
e) Babes-erregimenaren kalifikazio iraunkorra.

29.artikulua. Lehen erabilerako lizentzia.

Obra amaitu ondoren, lehen erabilerako lizentzia eskatu beharko da. Hori emateko, ezinbesteko baldintza izango da etxebizitza berria hiri-zerbitzuen sareekin konektatuta egotea, hau da, uraren hornidura-sarearekin, saneamendu-sarearekin, energia elektrikoaren hornidura-sarearekin eta, hala badagokio, gasaren hornidura-sarearekin.

Lehen erabilerako hirigintza-lizentzia lortzeko, ezinbesteko baldintza izango da aldez aurretik edo aldi berean Udal Etxebizitza Tasatuaren behin betiko kalifikazioa lortzea, sustatzaileak eskatuta, eta etxebizitza behin-behineko kalifikazioaren zehaztapenak kontuan hartuta egin dela egiaztatu beharko da.

Erabilera-aldaketa gauzatzeko behin betiko ziurtagiria lehen erabilerako lizentzia eman ondoren eta etxebizitzan benetan norbait bizi dela egiaztatu ondoren emango da aurreko artikuluan ezarritako epean.

Hori bete ezean, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatu ahal izango du Administrazioak.

Artículo 28. Contenido de la calificación.

Las resoluciones que correspondan a las calificaciones provisional y definitiva de la vivienda contendrán los siguientes extremos:

a) Identificación de la persona promotora (nombre o razón social, identificación fiscal y domicilio);
b) Superficie útil de las viviendas de la promoción;
c) Régimen de uso de la vivienda: Venta
d) Precio de venta
e) Calificación permanente del régimen de protección.

Artículo 29. Licencia de primera utilización

Una vez finalizada la obra, deberá solicitarse licencia de primera utilización, siendo requisito indispensable para su concesión que se haya efectuado la conexión efectiva de la nueva vivienda a las redes de servicios urbanos: Abastecimiento de agua, saneamiento, suministro de energía eléctrica y, en su caso, suministro de gas.

Para la obtención de la licencia urbanística de primera utilización será requisito necesario la obtención previa o simultánea, a solicitud del promotor, de la Calificación Definitiva como VTM, debiendo acreditarse que la vivienda se ha realizado según las determinaciones de la Calificación Provisional.

La certificación definitiva de la materialización del cambio de uso será expedida una vez concedida la licencia de primera utilización y previa comprobación de que la misma se encuentra efectivamente habitada dentro del plazo señalado en el artículo anterior.

El incumplimiento de lo anteriormente señalado, dará derecho a la Administración al ejercicio del derecho de tanteo y retracto.

30.artikulua. Baimenaren iraungipena.

Behin-behineko kalifikazioa eta obra-lizentzia eman eta urtebete igaro ondoren lokala etxebizitza bihurtzeko obrak egikaritu ez badira eta lehen erabilerako lizentzia lortu ez bada, baimena iraungita eta ondoriorik gabe geratuko da, eta, zigor gisa, Udalari ordaindutako zenbatekoen %50 baino ez da itzuliko.

Artículo 30. Caducidad de la autorización.

En el caso de que, transcurrido un año desde el otorgamiento de la calificación provisional y la licencia de obras, no se hayan ejecutado las obras de transformación del local en vivienda, ni obtenido la licencia de primera utilización, la autorización quedará caducada y sin efecto alguno y, como penalización, únicamente le será reintegrado el 50% de los importes abonados al Ayuntamiento

5. KAPITULUA. ERREGIMEN OROKORRA	CAPÍTULO 5. RÉGIMEN GENERAL
31. artikulua. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea.	***Artículo 31. Derecho de tanteo y retracto.***
1.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarriaren zazpigarrena aurreikusitakoari jarraiki, etxebizitzek etxebizitza babestuen (Udal Etxebizitza Tasatuen) kalifikazioa izango dute, eta Oñatiko Udalak edo, subsidiarioki, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko izango duen eskubidea baliatzeko aukerari lotuta egongo dira etengabe.	1.- De acuerdo con lo previsto en apartado séptimo de la Disposición Adicional Octava de la Ley 2/2006, del Suelo y Urbanismo, las viviendas tendrán la calificación de viviendas protegidas (Vivienda Tasada Municipal) y quedarán sujetas de forma permanente al ejercicio de los derechos de tanteo y retracto a favor del Ayuntamiento de Oñati y, subsidiariamente, de la Administración General de la Comunidad Autónoma
2.- Oñatiko Udalak lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzen badu, etxebizitzaren jabeari ordaindu beharko dion prezioa Udalak eskubide hori erabiltzeko borondatea adierazten duen unean dagokiona izango da, Ordenantza honen 22. artikulua aplikatuz, , KPIarekin eguneratua.	2.- En el supuesto de que el Ayuntamiento de Oñati ejercite el derecho de tanteo y retracto, el precio que deberá de abonar al propietario de la vivienda, será el que corresponda en el momento de que el Ayuntamiento manifiesta su voluntad de ejercitarlo, en aplicación al artículo 22 de la presente Ordenanza, actualizado con el IPC.
3.- Etxebizitzaren titularrak etxebizitza besterendu nahi badu, horren berri eman beharko dio idatziz Oñatiko Udalari. Udalak hiru hilabeteko epea izango du etxebizitzaren jabeari atzera-eskuratzeko eskubidea erabiltzeko edo ez baliatzeko erabakiaren berri emateko, eta beste hiru hilabetekoa, egikaritzeko, betiere eskubide hori baliatzea erabakitzen badu.	3.- En caso de que el titular de la vivienda, desee enajenarla, deberá comunicar este hecho por escrito al Ayuntamiento de Oñati, que dispondrá de un plazo de tres meses para informar al propietario de la vivienda, de su decisión de ejercer o no el derecho de retracto y de otros tres meses para ejercitarlo, en el caso de que sea su voluntad
4.-Oñatiko Udalak erosketa gauzatu behar duenean, ez du Jabetzaren Erregistroan erregistratutako edo erregistratu gabeko kargarik eta zergarik (erreala edo pertsonala) izango.	4.- En el momento de formalizarse la adquisición por parte del Ayuntamiento de Oñati, la vivienda deberá encontrarse libre de toda carga y gravamen, ya real, ya personal, inscrita o no en el Registro de la Propiedad
Hortaz, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko balia- bidea baliatzeko hiru hilabeteko epea, eskubide hori baliatzeko asmoa duela jakinarazi ondoren, aurreko atalean aipatutako higiezinaren kargarik edo zergarik ez dagoela etxebizitzaren jabeak behar bezala egiaztatzen duenean hasiko da zenbatzen. Alternatiba gisa, kargarik ez dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri horren ordez kargak kentzearen kuantifikazio ekonomikoa aurkeztu ahal izango da, betiere Oñatiko Udala ados baldin badago. Kasu horretan,	En consecuencia, el plazo de tres meses para el ejercicio del derecho de tanteo y retracto, una vez manifestado su voluntad de hacerlo, comenzará a computarse desde el momento en que el propietario de la vivienda acredite de forma fehaciente la no existencia sobre el inmueble de las cargas o gravámenes señalados en el apartado anterior. De modo alternativo, dicha acreditación de la inexistencia de cargas podrá ser sustituida por una cuantificación económica de la desaparición de las mismas, que cuente con la conformidad del

hiru hilabeteko epea kargen kuantifika- zioarekiko adostasuna jakinarazten denean hasiko da zenbatzen.

Ayuntamiento de Oñati En este caso, comenzará a computarse el plazo de tres meses desde que se notifique dicha conformidad con la cuantificación de las cargas.

5.- Epe horiek igaro eta Oñatiko Udalak ez badu bere eskubidea erabili, etxebizitzaren jabeak hirugarren bati besterendu ahal izango dio.

5. Transcurridos dichos plazos, sin que el Ayuntamiento de Oñati, haya ejercitado su derecho, el propietario de la vivienda podrá enajenarlo a un tercero.

6.- Udalak ez badu lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzen, Udalak ohartarazi beharko dio saltzaileari etorkizunean lokala erosi nahiko lukeenak etxebizitza tasatuaren udal-ordenantzaren baldintzak bete beharko dituela.

6. En el supuesto de que el derecho de tanteo y retracto no se ejercite por el Ayuntamiento, este deberá de apercibir al vendedor de que el futuro adquiriente del local deberá cumplir las condiciones de la ordenanza municipal de vivienda tasada

32.artikulua. Zehapenak eta arau hausteak.

Artículo 32. Sanciones e infracciones.

1.- Ordenantzak «*Udal ordenantza, hirigintza antolamenduaren osagarria*» izaera du, eta, beraz, ordenantza honen arau-hausteak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera zehatuko dira.

1.- Esta Ordenanza tiene carácter de «Ordenanza municipal complementaria de la ordenación urbanística», por ello las infracciones de la presente Ordenanza se sancionarán de acuerdo con la ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo.

.

33.artikulua. Ziurtagiriak ematea.

.

Artículo 33. Emisión de certificaciones.

Pertsonek lokalaren erabilera aldatu dela egiaztatzeko eskatzen dituzten ziurtagiri guztiak emango dira.

Se emitirán cuantos certificados soliciten las personas para la acreditación del cambio de uso a vivienda.

34.artikulua. Katastroari eta Eusko Jaurlaritzari jakinaraztea.

Artículo 34. Comunicación al Catastro y al Gobierno Vasco.

Jatorriz hirugarren sektoreko erabilera zuen lokal batean etxebizitza-erabilera baimendu ondoren, Udalak horren berri emango dio Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hiri Katastroari, bidezko ondorioetarako. Era berean, Oñatiko Udalak etxebizitza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailari jakinaraziko dio alderdi hori, dagokion erregistroan etxebizitza babestu (Udal Etxebizitza Tasatu) gisa inskribatzeko, eta Sail horrek etxebizitzetan Autonomia Erkidegoko babes ofizialeko etxebizitzei buruzko araudiaren ondoriozko ikuskapen- eta zigor-erregimena aplikatzeko.

Una vez sea autorizado el uso de vivienda en un local destinado originariamente al uso terciario, el Ayuntamiento pondrá dicha circunstancia en conocimiento del Catastro de Urbana de Diputación Foral de Gipuzkoa, a los efectos oportunos. Así mismo, el Ayuntamiento de Oñati notificará tal extremo al Departamento de Gobierno Vasco competente en materia de vivienda a los efectos tanto de su inscripción como vivienda protegida (Vivienda Tasada Municipal) en el correspondiente registro autonómico, como de aplicación sobre tales viviendas, y por dicho Departamento, del régimen de inspección y sancionador derivado de la normativa reguladora de las viviendas de protección oficial autonómicas.

35.artikulua. Jabeen Erkidegoaren estatutuak edo jabetza horizontala aldatzea.

Lokala etxebizitza bihurtzeko udal-baimena hirugarrenen eskubideak eta esku-hartzearen ondorioz Jabeen Erkidegoaren estatutuetan edo jabetza horizontalaren tituluan egin beharreko aldaketak aparte utzi gabe emango da. Nolanahi ere, eraldaketaren sustatzaileak izango du aldaketa horien erantzukizuna.

Artículo 35. Modificación de los estatutos o de la propiedad horizontal de la Comunidad de Propietarios.

La autorización municipal para la conversión se otorgará sin perjuicio de los derechos de terceros y de las modificaciones de los estatutos de la Comunidad de Propietarios o del título de la propiedad horizontal que en su caso pudiera exigir la intervención, respecto de las que en todo caso responderá la persona promotora de la transformación.

XEDAPEN GEHIGARRIAK	DISPOSICIONES ADICIONALES
Lehena. Araudi osagarria.	***Primera. Normativa supletoria.***
Ordenantza honetan aurreikusi gabekoari dagokionez, erregimen tasatuko babes ofizialeko etxebizitzei buruzko Autonomia Erkidegoko araudia aplikatuko da osagarri gisa, eta, halakorik ezean, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzei buruzkoa, diziplina-arloa barnean hartuta.	En lo no previsto en la presente Ordenanza se aplicará supletoriamente la normativa autonómica sobre viviendas de protección oficial en régimen tasado y, en su defecto, la de las viviendas de protección oficial de régimen general, incluyendo la materia disciplinaria.
Era berean, Etxebizitza Tasatuaren Udal Ordenantza Arautzailea aplikatuko da.	De igual modo se aplicará la Ordenanza Reguladora Municipal de Vivienda Tasada.
Bigarrena. Etxebizitza bihurtutako lokalen erregistroa.	***Segunda. Registro de locales convertidos en vivienda***
Hirugarren sektoreko erabilera aldatzeko eta bizitegi-erabilera emateko Udalaren baimena jaso duten lokal guztiak inskribatzeko erregistro bat sortuko du Udalak berak.	El Ayuntamiento creará un Registro en el que se inscribirán todos los locales cuyo uso ha autorizado alterar de terciario a residencial.
XEDAPEN IRAGANKORRAK	DISPOSICIÓN TRANSITORIA
Ordenantza hau indarrean sartu aurretik erabilera aldatu duten lokalei erabilera-aldaketa gauzatu zen unean indarrean zegoen araudia aplikatuko zaie..	Los locales que hayan realizado un cambio de uso, con carácter previo a la entrada en vigor de la presente Ordenanza, les será de aplicación la normativa vigente en el momento en que se materializó el cambio de uso.
AZKEN XEDAPENA	DISPOSICION FINAL
Ordenantza hau bere behin betiko onarpena eta testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 15 egun baliodunetara jarriko da indarrean.	La presente Ordenanza entrará en vigor a los 15 días hábiles a partir de la publicación de su aprobación definitiva y de su texto en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Iraila 2024 Septiembre
Talde idazlea:
Equipo redactor:

Luciano Pagaegi — SABAI arkitektoak s.l.p.
Nekane Azarola — ARAUDI. s.l.
Elena Alonso /Raoul Servert — ARAUDI. s.l.